SAHAR SABA

"Talibanen garaian baino emakume gehiago bortxatzen dituzte orain Afganistanen" **/8**

KIROLA: EUSKARAZKO FITXA DIDAKTIKOAK ARGITARATU DITUZTE /10

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko abenduaren 3a • V. urtea

179. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

European Newspaper AWARD
Goienkaria
ONDOEN DISEINATUTAKO TOKIKO AGERKARIA EUROPAN

BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA

Goienka2a
Hogeitik gora artikulu berri Debagoienetik Durangoko Azokara

ASTEKO GAIA: HIRU UDAL INPLIKATU BERRI DIRA

Berbetak jasotzeko lana, aurrera

Deba ibarreko berbetak jasotzeko proiektua hasi zuen Badihardugu euskara elkarteak, eta joan den astean aurrerapausoa egin zuen, Leintz Gatzaga, Aretxabaleta eta Eskoriatzako udalek eta Badiharduguk hitzarmena sinatuta. Horrekin, Deba Ibarreko Ahotsak proiektua bigarren fasean sartzen da: Leintz bailarako azpieuskalkiaren ikerketan, hain zuzen ere. Proiektu horren helburua da Deba ibar osoko berbetak ikertzea. **/2-3**

JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA

Gazteak administraziora hurbildu nahian

Euskararen erabilera bultzatzeko beste egitasmo aurkeztu zuten atzo, eguena, Aretxabaletako udaletxean. *Gazteak eta administrazioa* da ekimenaren izenburua, eta gazteak erakundeetara euskaraz hurbildu nahi ditu ekimen horrek. Ibarreko udal guztiek bultzatu dute ekimena, eta lehenago argitaratuta duten *Idatziak* liburuxkaren osagarria da; hain zuzen ere, administrazioarekiko harremanak lantzen dituen atalaren osagarri. Debagoieneko eskoletan, DBHko 3. eta 4. mailetako gaztetxo guztiei banatuko diete egitasmo horren emaitza den liburuxka, eskolan landu dezaten. Dohainik banatuko da liburua, 700 ale guztira. **/4**

Gaur, Danbaka lehiaketako kontzertua

N_OPH, Supercools, Ostiada Oi! eta Los Cretinos taldeek joko dute Danbaka musika lehiaketako laugarren emanaldian, gaur, Elgetako Espaloia kafe antzokian, 22:30ean. **/15**

DANBAKA

OÑATI

Sancti Spiritus Kapelako erretaula inauguratu dute

Oñatiko Unibertsitateko Sancti Spiritus Kapelako erretaula inauguratu zuten atzo, eguena. Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako diputatu nagusia, Andoni Gartzia Oñatiko alkatea eta Xabier Martiarena Gipuzkoako Foru Aldundiko Zaharberritze Tailerreko arduraduna izan ziren inaugurazio ekitaldian. **/6**

'Asteleheneko Goienkaria', martitzenean

Oraingo astelehena jai dela-eta, martitzenean, abenduak 7, banatuko da *Asteleheneko Goienkaria*.

GRUPO ARKAUZ

ARKAUZ ALTZARIAK
Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

ETXE MOBEL Muebles Altzariak
Araba etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

ARKAUZ SUKALDE INTEGRALA
Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA
FAGOR

ARKAUZ ELEKTRAGAILUAK
Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA
expert

GOIENA ASEGURUAK s.l.
Gu gara zure aukera.
www.goienaaseguruak.com

ARRASATE: Antso Abarka 6
943 79 59 81. F: 943 79 39 18

BERGARA: Zurradero 2
943 76 97 65. F: 943 76 40 37

VITALICIO · DKV · Santander Central Hispano · MAPFRE · AXA · OCASO · CATALANA OCCIDENTE · ING NATIONALE-NEDERLANDEN · Banesto

DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/6 • IRITZIA/8 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • DENBORA-PASA/20 • TELEBISTA/22

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko abenduaren 3a

Ibarreko berbetak jaso, gorde eta hedatu

Deba Ibarreko Ahotsak proiektuari babesa eman diote hiru udalek

LEIRE KORTABARRIA

Deba ibarreko berbeta edo hizkerak berreskuratu eta gordetzeko bidean beste urrats bat eman zuten pasa den astean. Izan ere, joan den martitzenean, azaroak 30, Leintz Gatzaga, Aretxabaleta eta Eskoriatzako udalek, batetik, eta Badihardugu Debarroko euskara elkarteak, bestetik, hiru urterako lankidetza hitzarmena sinatu zuten, Eskoriatzan. Hitzarmen horren bidez, hiru udalok babesa eta dirulaguntza ematen diote Deba Ibarreko Ahotsak proiektuari. Badihardugu aurrera eramaten ari da proiektua, eta dagoeneko Debarroko hainbat udalen laguntza zuen. Orain, Debagoieneko hiru horien laguntza ere izango du.

Deba Ibarreko Ahotsak egitasmoaren helburua da ibar osoko –Debagoien eta Debabarreneko hamazazpi herriak– berbetak ikertzea eta gordetzea, herrietako edadetuei egindako elkarrizketen bidez.

Pasa den martitzeneko sinadura ekitaldia Eskoriatzako udaletxean egin zuten Arritxu Oliden Aretxabaletako alkateak, Juan Carlos Bengoa Eskoriatzako alkateak eta Jose Ramon Perez Gatzagako alkateak eta Asier Sarasua Badihardugu kideak.

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Asier Sarasua (Badihardugu) eta Arritxu Oliden, Juan Carlos Bengoa eta Jose Ramon Perez (Leintz bailarako alkateak), sinadura ekitaldian.

INDARRAK BATU

Hitzarmena aurrerapausoa da Deba Ibarreko Ahotsak proiektuari batasuna emate aldera. Asier Sarasuak esan zuenez, "koordinazio handiagoz" lan egin ahal izango dute aurreratzean. Orain arte, berbeten inguruko lana izan da herri bakoitzak bere ikerketak eginez, baina proiektu horrekin indarrak batuko dira eta elkarte bakar batek izango du denaren ardura. Udal ordezkariek ere iritzi ona azaldu zuten: Juan Carlos Bengoa Eskoriatzako alkateak, adibidez, esan zuen "gure berbeta berreskuratzeko lehenengo pauso bat" dela hitzarmena.

Badihardugurен helburua da ahalik eta inplikatu gehienen

Gatzaga, Eskoriatza eta Aretxabaletak berbeten gaineko ikerketa bati babesa emango diote

Badihardugук aurrera darama berbetak jasotzeko proiektua ibarreko 17 herrietan

Elkarrizketak egiten dizkiete herrietako nagusiei, bertako hizkera eta historia jasotzeko

MAPFRE
Aseguruak • Finantzaketa • Renting

Mapfre
Errekabarren 3
943 77 11 76
ARETXABALETA

Mapfre
Garibai etorbidea 16
943 79 89 00
ARRASATE
Arrasate pasealekua 37
943 79 71 31
ARRASATE

Mapfre
Simon Arrieta 3
943 76 18 80
BERGARA

Altube zerb.-Mapfre
Portu 5
943 78 12 65
OÑATI

laguntza lortzea. Bat egin berri duten hiru herriez gain, lehendik Bergara, Antzuola, Elgeta, Mallabia eta Soraluzeko udalen babesa zuten; baita Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiarena ere. Eibarren, Arrasaten eta Ermuan ere lanean dihardute.

HELBURUA, HEDATZEA

Deba Ibarreko Ahotsak egitasmoa ez da berria, hala ere, 2002an hasitakoa baizik, eta eskualdeko berbetak, batez ere, baina baita kultura tradizionala eta historia ere jasotzeko eta gordetzeko proiektu mardula da. Orain arte, dialektoak eta etnografiaren gainean egin diren grabazioak biltzea eta berriak egitea da abiapuntua. Hiru ardatz nagusitan gorpuzten da: berbetak jaso, ikertu eta gorde, eta hedatu. Helburu horrekin, ahots eta irudi grabazioak landu ondoren lortzen den emaitzarekin datu-base bat egingo dute, eta erakundeen, ikastetxeen, ikertzaileen... esku egongo da, baina baita publiko ororen esku ere. Izan ere, oraingoz, grabazio batzuk entzuteko aukera dago Badihardugurен webgunean.

Zabalkundea, ordea, epe luzerako kontua da. Egunotan, lana bilketa eta ikerketa fasean dago. Izan ere, zortzi udalen laguntza bakarrik jasotzen badu ere, proiektua aurrera doa Deba ibarreko 17 herriotan, bakoitzaren berezitasunei arreta ipiniaz.

Lan luzea dute, baina informazio bilketa gozatzen ari dira: "Nagusiei egindako elkarrizketek gure oroimen kolektiboaren eta hizkeraren ikuspegi zoragarria ematen digute", dio Badihardugukek. Hizkerak ez ezik, gure historiaren, antzinako lanbideen, bizimoduen eta pertsonen ekarpenaren altxor hori guztion esku izango da urte batzuen buruan.

Euskararen Eguna

Euskararen Eguna modu berezian ospatzeko aukera izango da Bergaran eta Eskoriatzan. Biotan panel bana ipiniko dute, herritarrek euskararen inguruko mezuak idazteko. Bergaran, Munibe plazan izango da, eta Eskoriatzan, herriko plazan. Eskoriatzako ekitaldia Udalak eta herriko ikastetxeek deitu dute, eta *Esanak esan, euskara* leloa aukeratu dute. Bergarako ekintzak *Euskara zabaltzia, denon konpromisua* lelopean deitu dituzte Euskal Herrian Euskaraz, Jardun eta AEK erakundeek, Udalak eta hainbat ikastetxek. Bergaran, beste ekitaldi batzuk ere egongo dira: 17:00etatik aurrera, umeek marrazkiak egingo dituzte, eta hainbat jolas eta gozoki banaketa ere egingo dituzte; 19:30ean, Telesforo Monzon herriko semeari omenaldia egingo diote; gero, musika kalejirak, trikipoteoa eta afari merienda izango dira. Bukatzeko, Eskoriatzan antzerkia eta Bergaran *Berriketan* saioa izango dira, gauean.

Horietaz gain, Debagoieneko ikastetxe guztietan boligrafoak banatuko dituzte, enborrean *Euskara zabaldu* leloarekin. Bergaran, egitarau zabalagoa dutela eta, Munibe plazara joaten diren gaztetxo guztiei emango diete bana.

ARTXIBOA

Umeendako euskararen gaineko txokoa izango da Bergaran.

ASIER SARASUA / BADIHARDUGU EUSKARA ELKARTEA

"Materiala edozeinek kontsultatu ahal izango du"

Asier Sarasua da Deba Ibarreko Ahotsak proiektuko arduradun bat.

Asier Sarasua.

Gatzagan, Aretxabaletan eta Eskoriatzan hasi duzue lana?

Oraindik hasten gaude. Grabazio gutxi batzuk badauzkagu, geuk eta udalek. Lehenengo urratsa da lehengo grabazioak entzutea eta ondo katalogatzea. Hortik aurrera hasiko gara elkarrizketa gehiago egiten.

Zenbat nagusi elkarrizketatuko dituzue?

40 bat. Hiru herrietako eta auzo guztietako hiztunak izango dira, erdiak emakumeak eta beste erdiak gizonezkoak. Lehenengo grabazio libreak egingo ditugu, antzinako kontuak jasotzeko, eta gero beste batzuk zehatzagoak, herriko euskararen ezaugarriak jasotzeko.

Zelakoa da elkarrizketatuekin hartu-emana?

Oso ona. Orain arte, oso ondo hartu izan gaituzte, etxeko ateak zabalduta. Asko eskertzen dugu euren laguntza. Eurak ere konturatzen dira eurek ezagutu zuten mundua eta hizkera galzorian daudela eta lehenbailehen batu behar ditugula, betiko galdu aurretik.

Horrez gain, eurekin berba egitea oso aberasgarria da. Guk baino askoz euskara aberatsagoa dute, gazteondako ezezagunak diren formak, egiturak, berbak... dakizkitelako eta erdaren ukitua askoz txikiagoa delako; bestalde, jakituria handiko jendea da, asko bizi eta ikasitakoa, beste bizimodu bat izan dute... Elkarrizketa bakoitzean ikasten da zer edo zer.

Zuen lanaren emaitza nori zuzenduta egongo da?

Edozeini. Badihardugukek ipintzen duen arau bakarra da, hain zuzen, jasotzen den guztia edozeinek kontsultatzeko moduan egon dadila. Jasotako guztiak publikoa izan behar du, eta denon esku egon behar du. Erabiltzaile mordoa izan ditzake materialak: ikastetxeak, gazteak, euskaldun berriak, historialariak, filologoak...

TEKNOLOGIAK EUSKARAREN ALDE

Udaberri inguruan gertu izango da 200-300 pasarteko fonoteka

Udaberri aurretik prest egongo da Interneten Deba ibarreko fonoteka. Oraingoz, ahots grabaketa batzuk *www.badihardugu.com/fonoteka* webgunean daude. Datu basea osatzen joango dira denborarekin. Lehenengo fasean, 200-300 pasarte inguru egongo dira. Badihardugurен asmoa da ahozko ondarea ahalik eta ondoen jasotzea, antolatzea eta gordetzea, etorkizunean edozeinek erabiltzeko moduan egon dadin.

LAGUNTZA ONDO HARTUKO DUTE

Badihardugurekin harremanetan jartzeko hainbat modu

Badihardugu elkarteak gustura hartuko du gure berbetak jaso eta gordetzeaz arduratuta dagoen edozeinen laguntza, bai elkartean bertan, bai proiektu jakin honetan. Berbetez dakitenez gain, ondo hartuko dituzte gure eskualdeko historian adituak, esate baterako. Harremanetarako datuak hauek dira: 943 12 17 75 telefono zenbakia, *ahozko_ondarea@badihardugu.com* helbidea eta *www.badihardugu.com* webgunea.

BIGARREN FASEAN SARTUTA

Aurretik, Bergara inguruko berbeta ikertu dute

Hitzarmen berriarekin, proiektuaren bigarren aldia hasten da, Leintz bailarako berbetaren ikerketa, hain zuzen ere. Iaz ezkero, Bergara, Antzuola, Elgeta, Soraluze, Eibar eta Ermuko berbetak ikertu dituzte.

Hala ere, ibarreko 17 herrietan dihardute grabaketak egiten, eta ez horietan bakarrik, baita hizkera antzekoa duten beste leku batzuetan ere: Otxandion, Ubidean, Durangaldean...

ERAKUNDEEN INPLIKAZIOA

Gero eta laguntza handiagoarekin, proiektua urtero indartuz doa

Deba Ibarreko Ahotsak ikerketak zortzi udalen, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza du. Horrela, "urtero-urtero proiektuak indartzen dihardu", elkartearen esanetan. Jaurlaritzak dirulaguntza eman die aurten grabaketak egiteko; Aldundiaren laguntzak ahalbidetzen du grabaketak Interneten ipintzea. Udalen artean, Bergarakoa izan zen aitzindari, eta bere fonoteka oso aurreratua dago.

Zumelaga
JATETXEA
62 urte zuen zerbitzura!
San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

bitart
Abokatutza eta bitartekaritza
Lege arazoen konponbide labur eta baketsuak
Larraitz Ugarte
Maider Morras
Nafarroa etorbidea 23
ARRASATE
943 71 25 22/23
659 59 71 21

JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA
Aretxabaletako udaletxeko osoko bilkuren areteoan egin zuten aurkezpena atzo, eguena.

Urkuluko 'Eko Hiria' proiektua geratu du Eusko Jaurlaritzak

Etxebizitzak eraikitzeko asmoa zuen, besteak beste

MARIA AGIRRE

Joan den astelehenean prentsaurrekoa egin zuten hainbat eragilek, Urkulurako zituen asmoak Jaurlaritzak alde batera utzi dituela jakinarazteko. Pozik azaldu dira Jaurlaritzak hartutako erabakiarekin.

Eko Hiria izenez bataiatutako proiektua geldiarazi du Jaurlaritzak. Duela hil bi jakin zuten ofizialki bailarako udalek Jaurlaritzak hartutako erabakiaren berri. Astean, berriz, Aralar, Batasuna, Ezker Batua, Zutik, Ahots Kooperatibista, CCOO, ESK, LAB, AHT Gelditu eta Ekologistak Martxan taldeek plazaratu dute albistea, eta gizartetik egindako presioa erabakigarria izan dela adierazi diote.

UDALATX MENDIAREKIN GAUZA BERA

Udalatx menditik harria ateratzeko Arrasateko Udalak duen asmoa dela eta, arestian aipatutako taldeak aurka azaldu, eta proiektu hori geldiarazteko hainbat ekintza egingo dituztela aurreratu dute.

Kalean, gazteak administrazioarekin harremanetan jartzeko liburuxkak

Debagoieneko Mankomunitateak liburu eta CDak banatuko ditu eskoletan

Z.V.M.

Gazteei administraziora hurbiltzea kosta egiten zaiela ohartuta, Mankomunitateak *Gazteak eta Administrazioa* kaleratu du. Gazteei interesatzen zaizkien gaiak hartu eta eskoletan banatzeko unitate didaktikoa aurkeztu zuten atzo.

Atzo, eguena, aurkeztu zuten Aretxabaletako udaletxean *Gazteak eta Administrazioa* izeneko unitate didaktikoa. Orain bi urte *Idatziak* liburuxka kaleratu zuen Mankomunitateak, eta "gazteak administraziora gerturatzeko lan berezia egin behar zela ohartu ginen", eman du aditzera Iñigo Iñurrategi Mankomunitateko Euskara batzordeburuak. Hala, lan hori Arrasateko Udal Euskaltegiko Amaia Arana eta Elena San Martini egitea eskatu eta haiek unitate didaktikoa egin dute. "Gai interesgarriak aukeratzea beharrezkoa ikusi genuen, pentsatuz gazte askok urrun ikusten dutela administrazioa", adierazi dute.

IKASTUNITATEAREN HELBURUAK

Funtsezko helburua eskaera, kexa eta erreklamazio idatziak lantzea da. Gainera, egoera erreal baten aurrean nola hitz egin lantzeko ariketak proposatzen dituzte, orokorrean, gazteei interesatzen zaizkien gaiekin lotuta.

Hasieran Debagoieneko eskoletan lantzeko proiektua baldin bazen ere, EAEko ikastetxe guztietan jasoko dute ale bana Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Iparralde eta Nafarroako eremu euskaldunetan ere banatuko dituzte.

Akordiorik ezean, gose grebarekin segituko dute anbulantzien langileek

OIHANA ELORTZA

Astelehena ezkero gose greba mugagabean daude Gipuzkoako anbulantzietako langileak, eta akordiorik lortu ezean aurrera jarraituko dute. Dagoeneko ia 30 langile daude bajan, lanik ezin eginik.

Gipuzkoako anbulantzien alorrean lan egiten duten Debagoieneko sei pertsona daude gose greban Bergarako egoitzan. Horietako bat, gainera, bajan dago eguaztena ezkero. Guztira ia 30 anbulantzia gidari zein osasun-langile daude bajan. Langileen esanetan, enpresa komiteak ez ditu aintzat hartu euren eskakizunak eta akordioa lortu arte gose grebarekin aurrera jarraitzeko asmoa dute. Eskatzen dute: arautua dagoen heziketa espezifikoaren aplikazioa, soldataren igoera, larrialdietako protokoloa zehaztea eta egote orduak desagerraraztea.

Eusko Ikaskuntzak ekitaldia egin du Oñatin

Eusko Ikaskuntzarekin hitzarmena sinatu duten udalak Oñatiko kultura etxean batu ziren martitzenean. 30 bat herritako udal ordezkariak egon ziren, tartean, Arrasate, Bergara, Oñati eta Eskoriatzako alkateak. Hamar urte bete dira Eusko Ikaskuntzak euskal udalekin lankidetza hitzarmenak sinatu zituenetik. Egun, Euskal Herriko 60 udalek baino gehiagok dute sinatuta hitzarmen hori. Tartean daude Oñati, Bergara, Arrasate, Aramaio eta Eskoriatzako udalak. Etorkizunerako udalei lankidetza espazio berri bat aurkeztea izan zen ekitaldiaren helburua. /OIHANA ELORTZA

Txuringo
Jatetxea

Osintxu
Tel.: 943 76 48 63

NEGUAN
Igandeetan itxita,
baina enkarguak hartzen dira

SANTA LUZIA
Menu berezia abenduak 10 eta 11

- Urdaiazpiko ondua
- Patea
- Frijituak
- Txahal-entrekota edo bakailao-kokotxak
- Tarta izozkiarekin
- Ardo berezia
- Kafea

Prezioa: **21** euro + BEZa

KM 0000
Azken automobilak!!!

IM MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es

Ford
gozatzeko pentsatuak
irauteko eginak

Erregeak egingo duen bisitaldiaren aurka azaldu dira hainbat talde

Datorren eguenean, hilaren 9an, etorriko da Juan Carlos I.a. Arrasatera

GOIENKARIA

MCCko zuzendaritzak gonbidatuta Juan Carlos I.a. Arrasatera datorrela-eta, Debagoieneko Batasuna, LAB sindikatua eta herritar talde bat bisitaren aurka azaldu da. Azken horien ustez, "probokazio hutsa" da.

Arrasateko herritar talde batek joan den eguaztenean prentsaurrekoa eskaini zuen, Juan Carlos erregearen bisitaldia "probokazio hutsa" dela esanez. Gainera, datorren eguenean leiho eta balkoietan Ikurrina jartzea eskatu diete arrasatearrei.

Debagoieneko Batasuna ere aurka azaldu da idatzi batean, eta MCCko zuzendaritzak egindako gonbidapena "iraingarria" dela esan dute. Eta ezker abertzalearen herri plataformek mozioak aurkeztu dituzte bailarako udaletan, gai horren harira.

DEIANE ARRIETA

Joan den eguaztenean bisitaldiaren aurka azaldu zen herritar talde bat.

LAB SINDIKATUAK LANUZTEAK DEITU

Datorren eguenari begira, LAB sindikatuak bisitaldiaren aurkako lanuzteak deitu ditu. Goizez eta arratsaldez egingo dira. Gaur, bestalde, Mondragon Unibertsitateko ikasle eta langile batzuek kaleratu behar zuten iritzia.

10 milioi euro bideratuko dira Aristi eta Ikastaundi tunelak ekipatzeko

GOIENKARIA

Gipuzkoako Diputazioak astean onartu du AP-1 autobidearen Bergara-Iparra eta Arrasateko zatietan ekipamendu eta instalazioak jartzeko 10 milioi euro baino gehiago bideratuko ditu.

Eibar-Gasteiz autobidearen Bergara Iparra-Arrasate zatiko tuneletan ekipamenduak jarri eta instalazioak egokitzeko lanak enkantera aterako dira. 10 milioi euroko aurrekontua duen jarduera horri esker, Aristi eta Ikastaundi tuneletan beharrezkoak diren ekipamendu eta instalazioak jarriko dituzte. Aristiko tunelak 300 metro izango ditu, eta Ikastaundikoak 1.200. Horretaz gain, aipatutako lanen obra zuzendaritza kontratatzeko ezaugarri teknikoen agerikoa ere onartu du Gipuzkoako Diputazioak. Kasu horretan, 170.000 euro izango da laguntza.

DEBAGOIENEAN LABUR

Europa mailako diseinuzko saria jaso dute barikuko eta asteleheneko GOIENKARIEk

Europa mailako diseinu arloko beste sari bat jaso dute GOIENKARIAk eta *Asteleheneko Goienkaria*-k. Alemaniako European Newspaper Award erakundeak eman die saria gure ibarrean argitaratzen diren bi hedabideoi. Lehiaketan parte hartu dute 26 herrialdetako 334 egunkarik. Tokiko egunkarien sailean jaso dute saria: bietako bakoitzak, hiru azalengatik. GOIENKARIAk iaz Europako tokiko agerkari onenaren saria jaso zuen. Oraingoan, lehenengo aldiz, *Asteleheneko Goienkaria*-ri ere eman diote sari bat.

Jose Antonio Marina filosofo eta idazleak proiektu ekonomikoez jardun du Arrasaten

Proiektu ekonomiko berri bat izeneko hitzaldia eskaini zuen Jose Antonio Marinak martitzenean Arrasaten, Arizmendi Topaketak 2004 programaren barruan. Besteak beste, honako kontuez jardun zuen marinak: enpresaren inplikazioa gizartearen garapenean, erantzukizun soziala… Jose Antonio Marina pentsalariak adimena aztertzera bideratu du bere ikerketa-lana eta, batez ere, arte, zientzia, teknologia eta ekonomia arloetako sorkuntza-mekanismoak aztertzera. Arizmendi Topaketak da Gizabide Fundazioak urtero antolatzen duen ekitaldia. Aurtengoa XVIII. aldia izan da.

Patxi Cabo antzuolarrak ospitalean segitzen du ebakuntza egin ostean

Martitzenean egin zioten ebakuntza Debagoieneko Eskualde Ospitalean Patxi Cabo antzuolarrari. Polipoa kendu zioten hesteetatik. Atxilotu aurretik hitzartuta zeukan ebakuntza egitea, eta horregatik dago ospitalean, Arrasaten, joan den asteaz geroztik. Familiakoek eta neskalagunak bisitatzeko aukera izan dute. Patxi Cabo ospitalean dagoen bitartean, elkarretaratzeak egingo dituzte ospitale aurrean eta Antzuolako Zurrategi plazan, 19.00etan.

Zilarrezko Q saria eman diote Eskualdeko Ospitaleari kudeaketa ona egiteagatik

Eskualdeko Ospitaleak Zilarrezko Q saria irabazi du, bere kudeaketa onarengatik. Euskalit Fundazioak ematen ditu errekonozimendu horiek. Hil erdialdean EAE osorako ekitaldi baten jasoko dute saria ospitaleko arduradunek, beste irabazleekin batera. "Oso albiste pozgarria da guretako eta Debagoieneko gizarte osoarendako", adierazi dute ospitaleko arduradunek.

CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

Talde osoa emakumearen eskura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Nerea Marin

Antzutasuna
Erditzeak
Antisorgailuak
Menopausia
Ekografiak (4D)
Titietako gaixotasunak
Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
Hezur dentsitometria

Arrasateko kontsultategia:
Zerkaosteta 17, behea
Tel.: 943 79 20 18

Policlinica Gipuzkoa

Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88

ANTZUOLA

Gaur, egubakoitza, piztuko dituzte Gabonetako argiak herriko kaleetan

Gaur, egubakoitza, bukatzekoak ziren herriko kaleetan argiak jartzeko lanak. Gauzak horrela, oraingo asteburuan dagoeneko piztuta ikusiko ditugu Gabonetako argiak. Errege ondorenera arte, egunero piztuko dituzte argiok.

Iazko tokietan jarri dituzte argiak: Sagastin, Errekalden, frontoi aurrean, Ondarren, Beheko auzoan... Herriko bi sarreretan *Zorionak* dioten argiak jarri dituzte. Aurrekontua ere iazkoaren antzerakoa izan da: 6.000 euro inguru, hain zuzen ere. /AINTZANE IRIZAR

KONTZEJUPETIK

OÑATI

Unibertsitateko erretaula eraberrituta ekarri dute

Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitateko erretaula termitek janda zegoen eta 2000. urtean konpontzea erabaki zuten. Hiru urte behar izan dituzte Gipuzkoako Diputazioko Arteleku tailerreko kideek erretaula zaharberritzeko, eta behin eraberrituta, Oñatira ekarri dute berriro. Kontserbazio lanak egin dituzte aurrena: termitek egindako kaltea konpontzeko zurezko euskarri berri bat jarri behar izan diote erretaulari. Ondoren, zaharberritze lana egin dute, jatorrizkoa ahalik eta gehien gordetzen saiatuz. Atzo, eguena, eguerdian jarri zuten XVI. mende erdialdeko erretaula baliotsua bere tokian. Ekitaldian egon ziren, Artelekukoekin batera, Joxe Juan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako diputatu nagusia eta Andoni Gartzia herriko alkatea. /J.I.

ARETXABALETA

CVL lantegia dagoen tokian 121 etxebizitza egiteko argi berdea

Astean onartu dute Diputazioan, Cerrajera Valle Leniz lantegiaren lurzoruari kalifikazioa aldatzea. Orain arte jarduera ekonomikoetara zuzenduta egon den Lausittako lur eremu horretan, laster 121 etxebizitza egin ahal izango dira. Etxebizitza horiek guztiak merkatuko prezioan salduko dituzte.

CVL lantegia, berriz, Errotetxe baserri osteko lurretara aldatuko dute, bertan Industrialdea egiteko asmoa baitago. Ortubai SA enpresak eraikiko du Industrialde hori. /MARIA AGIRRE

ARAMAIO

Albinako itxitura aldatu egin beharko du Udalak, epailearen aginduz

Lurjabe batek ezarritako salaketa onartu egin du epaileak. Horren ondorioz, Aramaioko Udalak Albinan ipini zuen hesia aldatu egin beharko du lau puntutan.

Orain dela ia hiru urte ipini zuen hesia Udalak. Ganadua larretik errepidera ateratzen zen, eta horren eraginez, batez beste, 12-13 istripu izaten ziren urtean. Hori saihesteko ipini zuten hesia. Lurzoru publikoan ipini zuten, lau puntutan izan ezik; mendirako pasabideak zirelako. Horietan, lurzoru pribatuan ipini zuten. Eta horregatik aldatu egin beharko dute. /U.M.

BERGARA

Lanbide heziketa hasi zeneko 75. urteurrena beteko da aurten

Bergaran lanbide heziketa hasi zeneko 75. urteurrena beteko da aurten. Hori dela eta, Miguel Altuna institutuak *Bergarako Elementala: 75 urteko ibilbidea* izenburuko liburua aurkeztuko du datorren abenduaren 15ean.

Iñaki Larrañaga Miguel Altunako zuzendariak eguaztenean prentsaurrekoan adierazi zuenez, Seminarioan 1928-29 ikasturtean hasi zen lanbide heziketa. Espainiako gerrak eragindako etenaldiaren ondoren, berriz, gaur Miguel Altunak duen eraikinean jarraitu zuten lanbide heziketa eskaintzen, gaur egunera arte.

LIBURUA ETA DVD-A

Lanbide heziketaren aitzindariak topatzeko orduan, Iñaki Larrañagak 1850. urtera jo zuen: urte hartan lau industria eskola ziren Espainian: Madrilen, Bartzelonan, Sevillan eta Bergaran, hain zuzen ere.

Esan bezala, 75. urteurrena ospatzeko *Bergarako Elementala: 75 urteko ibilbidea* izenburuko liburua eta DVDa kaleratuko ditu Miguel Altunak. Gorka Etxabe Goienako kazetaria dugu liburuaren egilea, eta urte hauetan guztietan ikastetxetik pasa diren hainbat lagunen testigantzak jasotzen dira bertan, tartean lehen promozioko bi ikaslerenak. Liburuaren 3.000 ale kaleratuko dituzte eta doan banatuko da. Liburua zein DVDa abenduaren 15an aurkeztuko dituzte udaletxean, eta orain arte egindako lanaren lekuko izatea da arduradunen asmoa. /E.M.

Zertzelada

***Bergarako Elementala: 75 urteko ibilbidea* liburua abenduaren 15ean aurkeztuko dute, udaletxean egingo den ekitaldian**

ARRASATE

'Lotsaizuna' liburua aurkeztu zuten Monterron jauregian

Jokin Zaitegi Sariketako aurtengo itzulpena aurkeztu berri dute Arrasaten: Oskar Arana aramaioarraren *Lotsaizuna* lana, John Maxwell Coetzeren *Disgrace* eleberriaren itzulpena da. Coetzek Literaturako Nobel saria irabazi zuen 2003an, eta horrexegatik aukeratu zuten Jokin Zaitegi Sariketako antolatzaile Elkarlanean argitaletxeak eta AED elkarteak.

Lotsaizuna liburuaren aurkezpen ekitaldian AED elkarteko Unai Bergaretxe, Elkarlanean argitaletxeko Xabier Mendiguren, Oskar Arana itzultzailea bera eta Kutxako ordezkari Jose Luis Esnal izan ziren. I.B. / U.M.

XABIER URTZELAI

Literaturako Nobel saridun Coetzeren *Disgrace* lanaren itzulpena da.

ESKORIATZA

Merkataritza-lokalak etxebizitza bihurtzeko araudia aldatu dute

Eskoriatzako udalbatzak azken ohiko osoko bilkuran merkataritza-lokalak etxebizitza bihurtzeko araudia aldatu zuen. Izan ere, lehen, herriko lurrak bezala sailkatzen diren tokietan egoki zitezkeen lokal horiek. Orain, baina, salbuespen bat jarri du Udalak.

Hala, San Juan, Hidalga eta Gaztañadui kaleetan, Gorosarri plazan eta Santa Ana auzoetan egiten dabiltzan etxebizitza berrien etxabeetan ezin izango dira lokalak birgaitu lau urte barrura arte. Erabakiarekin espekulazioa gelditu gura dute. /Z.V.M.

ELGETA

Zigorra txikitu diote Arrate Elkororen hiltzaile Mendikuteri

Arrate Elkoro hiltzeagatik 20 urteko kartzela zigorra jarri zioten Aitor Mendikuteri; baina EAEko Auzitegi Nagusiak txikitu egin dio. Hala ere, lapurretagatik ipinitako hiru urteko zigorrak bere horretan jarraituko du. Guztira, 20 urte eta sei hilabeteko kartzela zigorra bete beharko du. Bestalde, Mendikuteren defentsa abokatuak Auzitegi Gorenean errekurtsoa aurkeztu du esanez Mendikuterena ez zela hilketa izan, giza hilketa baizik, eta ez zuela estankoan ezer lapurtu. /I.A.

GATZAGA

Askotariko gaiak landu zituzten atzo egindako ohiko osoko bilkuran

Atzo, abenduak 2, ohiko osoko bilkura egin zuten arratsaldean Leintz Gatzagako udaletxean. Nahiz eta hileko azken eguenetan egiteko ohitura duten, atzo egin zuten bilkura. Askotariko gaiak jorratu zituzten bertan.

Hainbat gastu eta faktura onartu zituzten, kontratu txikiak esleitu, eta Gipuzkoako taxi elkarteak aurkeztutako Debagoieneko autotaxi zerbitzuari buruzko proposamena izan zuten mintzagai, besteak beste, atzoko bilkuran. /Z.V.M.

Sahar Saba

AFGANISTANGO EMAKUMEEN ALDEKO RAWA ELKARTEKO KIDEA

“Talibanen garaian baino emakume gehiago bortxatzen dituzte gaur egun Afganistanen”

EMAKUMEAREN ASKATASUNA

“Ez dute segurtasunik, baztertuta daude eta toki askotan ez dute hezkuntza eta osasun zerbitzua jasotzeko aukerarik. Askatasuna aipatu arren, egoera lehengoa da”

HAUTESKUNDEEN ONDORENA

“Benetako trantsizio demokratikoa etorriko da Karzai presidenteak segurtasuna ekartzen badu eta gobernuaren eta ‘gerra jauntxoen’ arteko lotura mozten badu”

OIHANA ELORTZA

Afganistangoa da Sahar Saba, eta hango emakumeen eskubideen alde lan egiten duen RAWA elkarteko kidea da. Han bizi duten segurtasunik ezak behartuta, Arrasaten egon denean ere ez dio aurpegia kamerari erakutsi.

OIHANA ELORTZA

Trantsizio momentua bizi duzue orain Afganistanen. Nola bizi zarete?

Bere historiako momenturik ahulenetakoa ari da bizitzen Afganistan. Batetik, hauteskundeek sortu duten itxaropen berria dago herrian, baina bestetik, jendearen eguneroko bizimodua ez da asko aldatu. Segurtasunik eza, txirotasuna, langabezia, haur eta drogen trafikoa eta adierazpen askatasun falta dira, esaterako, herriak gaur bizi dituen arazo handienetakoak, eta herritarrek eta gobernuko ordezkariek hitz egin beharko dute gai horien inguruan. Itxura batean, badirudi gauza asko aldatu dituztela, baina paperean gelditu dira; berez, ez dute askorik egin herritarren bizimodua hobetzeko.

Hauteskundeak egin ziren ustelkeria, burokrazia astuna, eroskeria, droga trafikoa eta haurren bahiketa inoiz baino handiagoak ziren garaian eta armek eta terrorismoak herria dominatzen zutenean. Armek, diruak eta izua sortzeak legean eragiten dute, gainera. Armada Nazionala eta polizia AEBetako eta Europako indar armatuen mende daude.

Nondik hasi da gobernu berria trantsizioa egiten?

Iparreko Aliantzaren boterearen mende, Karzairen gobernuak ezin du segurtasuna eta legea babestu, behintzat, ez badu bere gobernuaren eta *gerra jauntxoen* arteko lotura mozten eta jendearengan konfiantzarik ez badu sortzen. Nazio Batuetako kazetariak eta hainbat elkartetako kideak ondo konturatu dira Afganistanen bizi duten segurtasun falta zein neurriraino heltzen den. *Gerra jauntxoak* boteretik gertu ez daudela ikusten badute soilik hartzen dute esperantza herritarrek.

Egia eta benetako trantsizio demokratikoa bakarrik etorriko dira Karzai presidenteak segurtasuna ekartzen badu, *gerra jauntxoak* garaitzen baditu, droga trafikoa murrizten badu eta herritarrek duten beste hainbat arazo konpontzen baditu. Afganistango herritarrek trantsiziorako zalantza handiak dituzte, talibanen agintetik AEBetako eta Europako indar armatuen agintera pasa baitira.

Dorre Bikien erasoen ondotik gerra latza sufritu duzue. Ze ondorio utzi dio gerra horrek hango emakumeari?

Beste behin, emakumea izan da gerraren lehen biktima. Askok senideak galdu dituzte erasoetan, eta, horrez gainera, euren egoerak okerrera egin du. Emakumea eta askatasuna etengabe lotzen eta aipatzen dituzte, baina hango emakumeen bizimodua ez da batere aldatu. Euren segurtasuna ez du inork babesten, eurak dira bahitzaileen eta hiltzaileen biktimak, eta horrek jarraitzen duen bitartean ezin da emakumearen askatasunaz hitz egin. Talibanen garaian baino emakume gehiago bortxatzen dituzte orain, eta Afganistango mendebalean, esaterako, izugarri igo da bere buruaz beste egiten duten emakumeen kopurua.

Nola bizi izan du gerra hori Afganistango emakumeak?

Gerra bizitzea infernuan egotea da oraindik ere Afganistango emakumeendako. Euren etxeak, bizitzak, familiak, esperantzak, ametsak eta ohorea deuseztatu zizkieten, guztia. Lurrean egiten den krimenik handiena bizi izan dute eta euren senideak nola hiltzen dituzten ere askok ikusi dute. Emakumeek ordaindu dute gerra, azken baten.

Eta nola bizi dute egungo egoera?

Ez lehen baino hobeto. Ez dute segurtasunik, txirotasun larrian bizi behar dute, baztertuta daude toki eta arlo guztietan eta Afganistango toki askotan ez dute oraindik hezkuntza eta osasun zerbitzua jasotzeko aukerarik. Oraindik ere gazte eta behartuta ezkontzen dira eta toki askotan *burqa* eramaten jarraitu behar dute.

Talibanek gobernua utzita, emakumeak askatasun handiagoa izango zuela uste genuen denok. Horrela izan da?

Ez. Hala ere, Afganistango emakume gehienendako askatasuna ez da bakarrik *burqa* kentzea. Emakumearen askatasuna segurtasuna izatea da, gauzak hobera joateko hitz egin ahal izatea, hezkuntza jaso ahal izatea, lana eta osasun zerbitzuak izatea eta euren iritziak ematea. Ziur nago egunen batean lortuko dituztela eskubide horiek guztiak.

Egungo egoerara iristeko hauteskundeak izan zenituzten. Nolakoak izan ziren?

Zoritxarrez, hauteskundeak ez ziren izan ez garbiak ez justuak. *Gerra jauntxo* asko zeuden gertu Afganistango presidente izateko. Gainera, bahiketak, droga trafikoa eta ustelkeria inoiz baino gehiago egiten zirenean egin ziren hauteskunde horiek. Orain, Afganistango egoera oso ahula da, eta Al-Kaedako bigarren buru Al-Zawaherik esaten du berriro ere talibanen eta Al-Kaedaren eskuetara bueltatu behar duela herriak. Al-Zawaherik dioenez, Al-Kaedak argi ikusten du AEBetako poliziek ez dutela euren helburua bete Afganistanen eta AEBetako zein Europako indar armatuen erlijioa eta ideologia gero eta indar handiagoa hartzen ari direla.

Amerikarrek Bush aukeratu dute berriro euren presidentea izateko. Nola jaso duzue notizia?

Munduko beste biztanle askorendako bezala, Afganistango herritarrendako ere notizia txarra izan da hori. Asko haserretu ere egin dira, horrek esan nahi duelako gerraren jarraipena, txirotasuna handitzea eta terrorismoa gehitzea, besteak beste. Era berean, ordea, badakite aginte sistema eta euren polizia indarrak direla benetan aldatu behar direnak.

Bin Laden harrapatzea da Bushen helburu nagusienetako bat, eta dio Bin Laden Afganistanen egon daitekeela. Eraso gehiago izango dituzuela uste duzu?

Bai, ez dago zalantzarik. Gainera, Bin Ladenen bila jarraitzeaz gain, euren kokalekua indartu egin gura izango dute, eta horrek esan nahi du bertako herriek ez dutela konfiantzarik izango AEBengan. Okerrena da, ordea, hori guztiori Afganistango herritarrek ordaindu behar dutela.

Drogak asko hedatzen ari ei dira Afganistanen.

Bai, horrela da. Gainera, giza eskubideen alde lan egiten duten elkarte batzuek eta komunikabide batzuek izan ezik, inork ez du ezer esaten horren inguruan. Droga *gerra jauntxoen* diru iturri nagusia da.

RAWA elkarteko kide zara. Zein lan egiten du elkarte horrek?

Afganistango emakumeen elkartea da, Kabulen sortu zen 1997an. Demokrazia eta emakumearen askatasun sozial justua defendatu eta lortu gura ditu, eta bi arlotan egiten du lan, gizarte arloan eta arlo politikoan. Horretarako, hainbat hitzaldi, ikastaro, eskola, argitalpen eta erizain lan egiten ditugu, baina ez da batere erraza, oztopo asko izaten ditugu eta segurtasun falta handia dugu. Baina, zorionez, RAWA poztasunaren eta itxaropenaren ikur bihurtu da, ahotsik ez dutenen etxea, eta, Afganistango emakumeen ez ezik, mundukoen ikurra ere bada.

Afganistan eta inguruko herrialdeetako emakumeok lan handia egin duzue Iparreko Aliantza eta talibanen aurka. Nolakoa izan da borroka hori? Behar beste zabaldu da jarduera hori mendebalean?

Lana bera ez da oso zaila izan, baina arrisku handikoa izan da, batez ere 1992tik aurrera. Edozein ekintza eginda ere edozer gerta daitekeen arriskua duzu. Klandestinitatean egin dugu lan, eta horrek esan nahi du gure bizitzak mehatxatuta zeudela. Oraindik, behintzat, isilpean egin behar dugu lan. Mendebaleko jendeak lagundu nahi badu, jakin behar du hemengo emakumea nola bizi den eta berak nola bizi nahi duen.

Gutunak

Jai herrikoien alde!

Arrasateko Santamasak dira, orain dela mende laurden baino gehiago, kultur talde eta herritarrek egindako ahaleginari esker berreskuratutako euskal jaiak. Ordutik, herri ekimen honek eramandako lan ereduari esker, Arrasateko jairik kuttunena izatera heldu da.

Gaur egun, herrietako jaiek gero eta espektakulu eta zerbitzu izaera nabarmenagoa hartzen ari direla ikusita, eta ondorioz, herritarren parte-hartzea ikusle izatera mugatzen dela nabarmenduz, jai herrikoiak bultzatzearen garrantzia azpimarratu nahi dugu.

Gure ustez, jai batzuk herrikoiak izan daitezen, ezinbestekoa da herriaren parte-hartzea. Parte-hartzea ez bakarrik proposatzen den egitarauan, baita egitaraua antolatzen, ideia berriak martxan jartzen, jendea erakartzen, eta abar. Jai herrikoi baten, herritar guztiok izan behar dugu subjektu aktiboa eta ezinbestekoa ikusten dugu herritarrek, sentsibilitate desberdinak kontuan hartuta, boluntario lana egitea. Halaber, antolakuntza honetan erakunde ofizialen parte-hartzea ere beharrezkoa da (Udal, Aldundi, Jaurlaritza...).

Jai eredu hau, herritarra, eredurik anitzena, zabalena, aberatsena, parte-hartzaileena eta jaien iraupenerako egokiena dela uste dugu. Gainera, pentsatzen dugu gauzak egiteko modu hau oraindik Euskal Herrian bizirik dirauen altxor bat dela, eta guztiok daukagula bai berarekin disfrutatzeko eskubidea, bai eta bera gordetzeko betebeharra ere.

Jakingo duzuen bezala, azkeneko urte hauetan, tirabira ugari izan dira Arrasateko Udalaren eta Santamas Komisiñuaren artean. Tirabira hauek Udalak Santamas jaiak instituzionalizatu nahi izanak sortu dituela uste dugu. Era berean, Udalaren estrategia honek guk daukagun jai herrikoi ideiari ez diola mesederik egiten uste dugu. Kezkak eta iritzi hauek Udaleko Kultura batzorde osoari azaldu genizkion, baina batzordeburuak ez du kultura taldeon iritzia aintzat hartu.

Gauzak honela, gertatzen ari denaren aurrean, gure desadostasuna (eta gurekin bat egiten duten guztiena) modu positibo batean adierazteko, abenduaren 18an jai parte-hartzaile bat egitea proposatzen dizuegu. Jai xume honetan, herritar bakoitzak ahal duena aportatuko du. Guk, kultura taldeok, gure esku dauden lanak (kale animazioa, dantza desberdinak, erakusketak, txerri-dantza, eta beste hainbat aktibitate) egingo ditugula jakinarazten dizuegu.

Argi utzi nahi dugu jai honen helburua ez dela ez boikota, ez jai alternatibo batzuk egitea, eta ezta inoren kontra egitea ere. Gure nahia edota helburua Santamas Komisiñuaren eta Udalaren arteko negoziazioa borondate osoz eta ahal bezain lasterren bultzatzea da. Baita Udalak kultura taldeen iritziak aintzat har ditzala ere. Santamasen biziraupenaren alde eta herriaren alde egin nahi badugu, behintzat, akordio batera heldu beharra ikusten dugu.

Abenduaren 18 honetarako, zuen (kultur talde, koadrila, familia...) proposamen eta parte-hartzearen zain geratuz eta eredu herrikoi hau gizarteko beste arloetara hedatuko den esperantzaz, agurtzen gara. Gora, Santamasak! Gora, jai herrikoiak!

ARRASATEKO TXISTULARIAK,
LORE GAZTEAK DANTZA TALDEA,
ARRASATEKO TRIKITIXA ESKOLA,
TXIKITXU-ARROSTAITZ DANTZA TALDEA,
ARTE TAILAGINEN ELKARTEA,
TTAKUN TXALAPARTA TALDEA
Arrasate

Ordutegi komertzialen liberalizazioa

Berriz ere, iragarkiek, bazterrak atontzeko erabiltzen diren apaingarriek, saltokietan begi bistan dauden goxo barietate zabalak, kale usainak eta neguko iluntasunaren beltza argitzen duten argiek, Gabonak gainean ditugula gogorazten digute. Eta, berriz ere, data hauek gerturatzen diren neurrian, urtero legez, ordutegi komertzialen ezbaia mahai gainean jartzen dute agintariek.

Estatu espainiarreko Diputatuen Kongresuak 2004ko azaroaren 3an onartutako lege proiektu batean, saltokiek urtean 12 igande edo jaiegunetan ateak irekitzeko ahalmena arautzen du. Erabaki hori autonomia erkidegoetako gobernu ezberdinek aldatzeko ahalmena izango dute, baina gutxienez 8 igande edo jaiegun eta 72 ordu astean zabaltzeko minimoa errespetatzearen berma ziurtatu behar dute. Orain arte, Eusko Jaurlaritzak saltoki handien patronalaren eta sindikatuen artean igande edo jaiegunik ez zabaltzeko akordio tazitoa errespetatu du. Hala ere, materia malgutasunez araututako marko batera eraman nahi duela erakutsi digu.

LABek, berriz ere, igande edo jaiegunetan dendek ateak irekitzearen beharra ikusten ez duela azpimarratu nahi du. Interesdun bakarrak saltoki handietako jabeak dira beraien irabaziak handitzearen nahi horretan eta gizarte eredu kontsumitzaile baten defentsan. Neurri honek, batetik, sektorearentzat ondorio larriak ekarriko lituzke: prekarietatea areagotu, lan baldintzak okertu, langileen bizi kalitatea jokoan ipini, harreman pertsonalak eta famili harremanak desegituratu e.a. Bestetik, saltoki txiki askok, auzo eta herrietako ekonomiaren eragileak, handien lehia jasanezinak eraginda ateak ixten bukatuko lukete. Eta, gainera, kontsumitzaileek behin baino gehiagotan adierazi dute ez dutela igande eta jaiegunetan ateak zabaltzeko beharrik ikusten.

Euskal Herrian, bizi, lan eta erabaki nahi dugulako eta urteetako aldarrikapenekin jarraitzeko, *Jaietan Denok Jai* sentsibilizazio kanpaina jarri dugu abian, gizarteari alarma seinalea erakutsi, borrokatu eta *Aquí 0* igande edo jaiegun zabalik nahi ditugula adierazteko.

LAB ZERBITZUAK
Debagoiena

Etxekalte

Oñati da Gipuzkoako herririk zabalena kilometro koadroak kontuan hartuz gero. Baina eremu zabal honetan ez da lekurik Aloña Mendi elkarteak futbol zelaia, atletismo pista, eskola kirola, beteranoen txapelketa eta txirrindulariek bira batzuk emateko kokaleku bat prestatzeko. Eskaintza mugatzen da Urrutxura. Ez dirudi leku hoberik duenik, kaliza urreztatu arren, hau beti kaliza.

Lehendik zurrumurruak bazebiltzan ere, 2004ko azaroaren 19ko GOIENKARIAn irakurri dugu Ihobek, Eusko Jaurlaritzako erakundeak, lurzoru poluituen berreskurapenerako programan sartuta duela Urrutxuko lursaila. Programa honek 2003-2006 tartea markatzen du berreskuratu ahal izateko.

Zer esanahi du poluituen eremuak? Kasua zera da: badira urte batzuk zabor biltegitzat erabiltzen hasi zela esparru hau, era berean, urte batzuk iragan dira Cegasan izandako sutearen ondorioz, sortu ziren hondakin guztiak zabortegi horretan pilatu zirela. Zer material izango zen? Pilak dituzten osagaiak ez ziren ondo konpontzen eta ez dira konpontzen urarekin eta ingurumenarekin; beraz, egindako azterketek erakutsi digute metal astunen presentzia, osasunarentzat kaltegarriak. Egia da berreskura daitezkeela, baina hau da Udal batek duen alternatiba bakarra (herritarren zerbitzura dagoen erakundea).

Herriak ez du izango beste leku bat higuingarriago, pozoitsuago eta hondatuagorik, eta zer? Eta hor eskaintza.

Orain urtebete, Donostiako Kursaal jauregian Gipuzkoako Foru Aldundiak Aloña Mendi elkarteari eman zion saria, elkarteak hainbat sekziotan (15) egindako lanaren eskertzat. Gure Udalaren ordezkaritza han zegoen, azalak hartzen ez zuela, eta gero zer eskaintzeko, eta kutsatutako eremua. Ez du beste ezer, botabolasak botatzeari utzi eta kirtenetik hartu arazoa. Emandako hitza bete, hori besterik ez. Zuena edo aurrekoena.

Ez dakit non dagoen borondate falta, behingoz arazoari irtenbidea emateko. Baina herritarrok baditugu eskubideak eta ez gaude prest artoaren truke garaia emateko. Ez dugu atzo goizeko egoera, etxekoak baino hobeto zaindu kanpokoak. Poltsa beroa dugu, banaketa hobetu beharra dago eta ez dadila bihurtu debaldeko pausoa.

ESTEPAN UNTZUETA ETA BESTE BATZUK
Oñati

Gaztetxeen aurkako erasoen aurrean autodefentsa!

Hilabete bat besterik ez da pasa Bilbon gaztetxeen eta autogestioaren defentsan manifestazioa burutu genuenetik. Bertan, Ertzaintzak bortizki kargatu zuen, eta zauritu ugari eta hainbat atxilotu egon ziren, argi utziaz gaur egun aginte-an daudenek zein jarrera duten gaztetxeekiko eta gazteekiko orokorrean.

Atzo, azaroak 30, Euskal Herrian horren ohituta gauden beste berri triste batekin esnatu ginen, Atarrabiako eta Iturramako gaztetxeak desalojatu baitzituen Espainiako Poliziak. Bi gaztetxe gehiago desalojatuen zerrendarako. Berriro ere boteredunak errepresioaren makineria martxan jarriaz, gazteen ilusioak eta ametsak zapaldu nahian. Berriro ere mehatxuak, lapurretak, kolpeak, atxiloketak, isunak...

Bilboko manifan, Ertzaintzaren jarrera zela eta, Arrasateko Gazte Asanbladak (AGAKO) atera zuen idatzian esaten zen bezala, min ematen die gaztetxeak gaur egun inposatutako baloreetatik at egunerokotasun batez gazteon iniziatibaz nola funtzionatzen duten ikusteak. Guk, idatzi honen bitartez, zera adierazi nahi diegu boteredunei: ez dugula etsiko. Eta gainera defendatuko garela. Kokoteraino gaudelako gure proiektuak inpuneki nola zapaltzen diren ikusteaz. Kokoteraino gaudelako Euskal Herri osoko gaztetxe eta gazteak inpuneki nola erasotzen diren ikusteaz.

Hau dela eta, gure bailarako gazte eta ez hain gazte guztiak aurrerantzean gaztetxeen aurkako ofentsiba honi erantzuteko antolatuko ditugun ekintzetan parte hartzera animatu nahi zaituztegu. Gaztetxeak beharrezkoak direlako gure herrietako bizitzetan: autogestioa eta asanblearismoa aurrera!

Ezin bukatu orain dela 6 hilabetetik erresistentzia lanetan dabilen Sorgintxulo gaztetxea aipatu gabe, gaurko egun baita Udalak gazteei hau husteko eman zien eguna. Gure babesa eta elkartasuna bidali nahi diegu bertako gazteei. Ez etsi, eutsi! Gaztetxeen aurkako erasoen aurrean autodefentsa, herri bat gaztetxe bat!

DEBAGOIENEKO GAZTE ASANBLADAK
Debagoiena

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberezibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Arantzazu Arana

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

***Aurreikuspen/Pentsio** Plana* | EUSKADIKO KUTXA

Etorkizuna kontuan hartzearren

2004an **Aurreikuspen/Pentsio** planean egiten dituzun ekarpenak batuta, opari hauetakoren bat aukeratu ahal izango duzu, eta 2004ko azaroaren 15etik aurrera eskatu eta jaso ahal izango dituzu.

Lisaketa gunea
15.000 euroko ekarpena

Gosaritarako sorta
5.000 euroko ekarpena

Express kafe-makina
8.000 euroko ekarpena

Sandwich-ontzia
2.500 euroko ekarpena

Laberako erretiluak
2.500 euroko ekarpena

Dekantagailua + 6 kopa
5.000 euroko ekarpena

ADI!
Beste erakunde batetik intsuldaketak eginez ere lor ditzakezu opariak.

Zurekin elkarlanean

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko abenduaren 3a

Gero eta kirol gehiago euskaraz

Eguaztenean aurkeztu zuten 'Kirola Euskaraz' egitasmoaren fitxak egiteko 15. edizioa

XABIER URTZELAI

Dagoeneko hamabost edizio egin dituzte *Kirola Euskaraz* bultzatzeko kirol fitxek. Azken edizioa Eibarren aurkeztu zuten, eguaztenean, eta aditzera eman zituzten aurtengo bekak lortzeko aurkeztu beharreko gaiak: *Hirugarren adineko gimnasiarako ariketak* eta *Uretako gimnasia.*

Beka eskuratu gura duenak bi gai horietako bat landu beharko du, eta urtarrilaren 30ean amaituko da beka eskatzeko epea. Dirulaguntzari dagokionez, fitxa bakoitza egiteko 3.000 euro emango dituzte. Aurkeztutako lanen artean bi aukeratuko dituzte, eta lau hilabete izango dituzte lanok egiteko.

IKER ARANBERRI

Eguaztenean eman zituzten aurtengo beken nondik norakoak eta joan den urteko lanak erakutsi zituzten.

JOAN DEN URTEKOEN AURKEZPENA

Aurtengo beka aurkezteaz gain, joan den urteko irabazleen lanak ere aurkeztu zituzten eguazteneko ekitaldian. Hantxe izan ziren Igor Olañeta eibartarra eta Nagore Iñurrategi bergararra. Igorrek *Gimnasioko ziklismoa* lana aurkeztu zuen, eta Nagorek *Kirol egokitua* lana. Igorrek adierazi zuen spinning kirol modalitatea aukeratu zuela, besteak beste, kirol erraza, dibertigarria, segurua eta osasungarria delako. Nagore Iñurrategiri dagokionez, gutxi dira *Kirol egokitua* gaia bera bezain ondo landu dezaketenak. Ikasketa amaierako proiektuan hori ikertu du, baina bergararrak urteak daramatza gai hori hurbiletik jarraitzen, zailtasunak dituztenekin lan egiten du-eta ibarreko igerilekuetan.

GARAI DIGITALAREN ERAGINA

Aurkezpenean, besteak beste, Foru Aldundiko Kirol Saileko zuzendari Iñaki Ugarteburu eta Debegesako lehendakari Estanis Osinalde izan ziren. Pozik agertu ziren biak; Estanis Osinaldek azaldu zuen aurten berritasunak izan direla. Izan ere, kirol fitxak euskarri digitalean ikusi ahal izango dira, DVD formatuan.

Iñaki Ugarteburuk esan zuen kirolaren mundua guztiz euskarazkoa ez bada ere, eta egiteko asko geratzen bada ere, uste duela bide onetik doazela. Dagoeneko 25 kirol fitxa dituzte, eta horrek erakusten du Deba bailarako udalek *Kirola Euskaraz* programarekin hartu duten konpromisoa. Izan ere, kirola bultzatu eta materiala euskaraz argitaratzea helburu duen programa horrek Debagoieneko eta Debabarreneko hamabi udalen laguntza du.

Kirolabur

FUTBOLA/DEBAGOIENA

Preferenteko ibarreko lau futbol taldeek bihar jokatuko dituzte oraingo jardunaldiko partiduak. Bergarak Agorrosinen jokatuko du, 15:30ean, Tolosaren kontra. Mondrak EHUren bisita izango du, 15:30ean. Aloña Mendik ere ordu berean jokatuko du, Oiartzunen, baina. Eta 16:30ean jokatuko du Aretxabaletak Orion.

ERRUGBIA/ARRASATE

Nazional mailako Arrasate Errugbi Taldeak liderraren, Gernikaren, kontra neurtuko ditu indarrak, bihar, 16:00etan Garagartzan. Gernika oso talde sendoa da, baina daukatena ematera zelairatuko dira arrasatearrak.

ESKUBALOIA/ARRIKRUTZ

Jardunaldiek aurrera egiten dute, eta oñatiarren gidoia ez da batere aldatu: etxean irabazi, kanpoan galdu. Hori aldatzen ahaleginduko dira gaur, egubakoitza, 20:30ean, Eibarren.

SASKIBALOIA/MUGARRI

Erro y Eugi talde nafarraren kontra partidu erabakigarria jokatuko dute Zutututzaren mutilek gaur ilunkeran, 20:00etan, Iturripen. Badirudi jokalari guztiak daudela jokatzeko moduan.

Kirol txapelketak bukatzear daude

Squash eta frontenisean masterrak jokatuko dituzte jokalari onenek

Esku pilota, squasha, pala, tenisa eta frontenisa. Kirol horien txapelketak ari dira jokatzen eskualdeko hainbat herritan. Irailetik abendua bitarteko txapelketak dira eta horietako batzuetan, squashean eta frontenisean, esaterako, masterrak jokatuko dituzte jokalari onenek.

TXAPELKETAK JOKOAN

Txapelketak irailean hasi zituzten: Aretxabaletan esku pilota txapelketa jokatu dute, Arrasaten squasha, Bergaran pala eta Oñatin tenis eta frontenis txapelketak. Hauetako txapelketa batzuk amaitu dira dagoeneko, baina beste batzuek, ordea, jokoan jarraitzen dute.

FRONTENIS ETA SQUASH MASTERRAK

Oñatin, adibidez, bi txapelketa jokatu dituzte. Gerardo Eskartza bertako Kirol teknikariak esan digunez, horietako bat, tenis txapelketa hain zuzen ere, amaitu da dagoeneko. Frontenisa, ordea, jokoan dago, eta bihar, zapatua, final-laurdenak jokatuko dituzte. Behin finala jokatu ostean, frontenis masterra jokatuko dute jokalari onenek.

Squash txapelketa, aldiz, geroago amaituko da, abenduaren 20a baino geroago seguruenik. Izan ere, aurten bi talde egin dituzte eta talde bakoitzeko jokalariek bata bestearen aurka jokatu behar dute. Arrasaten ari dira jokatzen txapelketa hau, eta hango teknikariak, Iñaki Uribetxeberriak, esan digunez, oraindik bost jardunaldi gelditzen zaizkie finaletara heltzeko. Squashean ere jokatuko dute masterra, urtarril aldera.

Masterrak jokatzeko hiru txapelketa jokatu behar izaten dira gutxienez, eta txapelketa horietako jokalarien puntuak batzen dituzte eta puntu gehien dituztenek jokatzen dute masterra. Squasheko masterra, adibidez, puntu gehien dituzten lehen zortzi jokalariek jokatuko dute. Esku pilotan eta palan ez dituzte egin hiru txapelketa, eta, beraz, kirol horietan ez dituzte masterrak jokatuko.

JOKALARIAK

Udazken-neguko kirol txapelketak dira hauek eta Debagoieneko Mankomunitateko kirol sailak urtero antolatzen ditu. Herri batean edo bestean ari dira jokatzen kirol bat edo bestea, baina ibarreko guztiek dute edozeinetan jokatzeko aukera.

Jendeak ezagutzen ditu dagoeneko txapelketa hauek eta parte hartzen duten jokalari kopurua finkatu egin da azken urteotan. Urte batzuetan bestetan baino jokalari gehiagok hartu dute parte, baina aurten iaz beste jendek hartu du parte. Frontenisean 30 bikotek dihardute.

KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:

Antzuola	943 76 62 46
Aretxabaleta	943 71 26 28
Arrasate	943 77 16 77
Bergara	943 77 91 67
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua

iKER

SUKALDEAK: Udala Plaza z/g, Arrasate / 943 79 00 43 **BAINUAK:** Zarugalde 52, Arrasate / 943 79 99 42

ETA ORAIN OÑATIN ERE BAI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

Joko didaktikoak eta Olentzero bilduma Ikastolen Elkarteko txokoan

Ikastolen Elkartea

Aoiz Plaza 1-4
48015 Bilbo (Bizkaia)
94 435 43 40
Faxa.: 94 435 43 41
Posta.: bie@ikastola.net
Orria.: www.bieikastola.net

Egin zure eskaria!

BAZAUDE ALA EZ ZAUDE?
Zubiaga
Maalako errabala 5.
ARRASATE.
Kale Barria 18.
OÑATI.

kalitateko haragia eska ezazu bere izenez
EUSKAL OKELA
Eusko Labela duen bakarra
EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DEL PAIS VASCO
EUSKO LABEL
KALITATEA
Soilik Harategi hauetan
Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak.
Artisauak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak.
BAIMENDUTAKO HARATEGIA
ANTZUOLA
GABILONDO ARREGI HARATEGIA
KALEBARREN, 14
ARAMAIO
BIXENTE L. AZPILIKUETA HARATEGIA
BIXENTI GOIKOETXEA PLAZA, 8
ARRASATE-MONDRAGON
LANDALUZE HARATEGIA
ITURRIOZ, 7
JOSE MARI SALEGI HARATEGIA
OLARTE KALEA, 20
AZPILIKUETA HARATEGIA
DOCTOR BAÑEZ, 10
AZPILIKUETA HARATEGIA
ERGUIN, 12
KORTABERRI HARATEGIA
ANTXO ABARKA, 1
BERGARA
ANDRES MUJIKA HARATEGIA
DOMINGO IRALA, 5
BIXAIN HARATEGIA
AZOKA PLAZA PTO. 5-6
ALDAI HARATEGIA
ESPOLON, 12
ESKORIATZA
ZUBIA HARATEGIA
SANTA ANA, 11
OÑATI
ANTXON HARATEGIA
SAN LORENTZO, 5
TARSICIO HARATEGIA
PORTU KALEA, 2
GARAY HARATEGIA
MAIATZAREN LEHENA PLAZA, 2
SUPER BM OÑATI-HARATEGIA
OLAKUA AUZOA, 8

Goienka 2a

Egubakoitza / 2004ko abenduaren 3a

Kultura eta aisialdia

Abenduaren 3tik 10era



ADIO
Bitoriano Gandiaga
Elkarlanean fundazioa

Frantziskotarrak hil aurretik argitaratzeko gertu utzi zituen hainbat idatzi.



PIANORAKO MUSIKA
Aita Madina
ausArtRecords diskoetxea

Oñatiar konposatzailearen pieza samur eta gustagarriak, orain dela gutxi deskubritutakoak.

2005EKO EGUTEGIA
Debagunea
Topagunea euskara elk. feder.

Deba ibarreko herrietan ateratako antzinako argazkiekin; ilargi faseak, santutegia… ere badakartza.

GAZTEMANIAK 8
Hainbat musika talde
Gipuzkoako Foru Aldundia

Lurraldeko hainbat talderen abesti bana agertzen da; tartean, Sharon Stoner eta Potemkin oñatiarrenak.

IDATZIAK
Eskoriatzako Udala
Badihardugu euskara elkartea

Inprimakiak, gutunak, agurrak… euskaraz idazten laguntzeko liburuxkak.

HIZTEGIA
Laixan euskara elkartea
Topagunea euskara elk. feder.

Gu eta Gure Hizkuntzak jaialdiko hiru hizkuntzazko hiztegitxoa eta egun horren inguruko DVDa.

LEHENENGO ALDIA
Hainbat egile
Txalaparta argitaletxea

Hainbat ipuin erotiko biltzen ditu liburu horrek; bat Diego Martiartu mondragoetarrak idatzi du.



LOTSAIZUNA
Oskar Arana
Elkarlanean fundazioa

Jokin Zaitegi saria irabazi zuen Oskar Arana aramaioarrak, eta J.M. Coetzeeren *Disgrace* euskaratu du.

LURRUNAK EZ DU...
Eneko Barberena
Gaztesarea

Eneko Barberena arrasatearrak poema liburua idatzi du. Gaur, egubakoitza, aurkeztu du lan hori.

MENDIAK
Juan Carlos Irizar
J.K.HI argitalpenak

Mendiak 30 bat partitura biltzen dituen liburua kaleratu du, izen bereko diskoaren osagarri.

ENTSEILU LOKALA 2
Hainbat musika talde
Gaztesarea

Euskal Herri osoko taldeen kantak biltzen dira disko horretan; tartean, Bergarako Supercools taldearena.

¿SINFONIA O JAZZ?
Luxio Ugarte
Unbe argitaletxea

Irizar enpresako Koldo Saratxagaren adibidea aintzat hartuta, bi enpresa eredu aztertzen ditu egileak.



ZIRKULUA
Andoni Urtzelai
Erein argitaletxea

Aretxabaletarraren bigarren lanak psikopata baten pentsaeraren berri ematen du.

NAFARROAKO...
Hiru Truku
Metak diskoetxea

97az geroztik, Ruper Ordorikak Hiru Trukurekin grabatzen duen lehen diskoa da.

IRAGANA, ORAINA...
Oñatiko Udala
Badihardugu euskara elkartea

Oñatiren gaineko 12 minutuko DVDa prestatu du hango Udal Turismo batzordeak.



HISTORIAS DE...
Jose Antonio Azpiazu
Elkarlanean fundazioa

Euskal marinel eta kortsarioen oroimena berreskuratzeko ikerketa egin du Jose Antonio Azpiazuk.

KIROLA EUSKARAZ
Debarroko udalak
Gipuzkoako Foru Aldundia

Debagoieneko udalek parte hartzen dute proiektu horretan. Kirolaren gaineko fitxa didaktikoak, euskaraz.



ILUNETIK ARGIRA...
R. Abasolo-J. L. de Munain
Hik Hasi hezkuntza aldizkaria

Elbira Zipitria euskarazko irakaskuntzako aitzindariaren biografia mardula.

HEMEN
Arantzazuko frantzisk.
Arantzazu argitaletxea

Erlijio arloko aldizkari berria da. Argitaletxe horrek beste produktu berri asko eramango ditu azokara.

SALAMALEKUM...
Txatxilipurdi elkartea
Topagunea euskara elk. feder.

Saharako umeak Euskal Herrira etortzen direnerako, euren hizkuntza ikasteko jolas polita.

DEBAGOIENEKO UZTA EZIN OPAROAGOA DURANGON

Hogeitik gora artikulu berriz gozatzeko aukera dugu azokan, hilaren 4tik 8ra bitartean

AZALA: IÑAKI ITURBE

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko abenduaren 3a

KULTURA/ **DURANGOKO 39. AZOKAN, DEBAGOIENDARREK PRESENTZIA HANDIA IZANGO DUTE**

Gureko hogei lan berri, azokan

DEBAGOIENDARREK EGINDAKO ZENBAIT LAN PROPIO AZOKAN AURKEZTUKO DIRA; BESTE HIRU PASA DEN ASTEAN PLAZARATU DIRA

LEIRE KORTABARRIA

Debagoieneko produktuak non-nahi aurkituko dituzte Durangoko azokara joaten direnek. Hain justu, azokan bertan aurkeztuko dituzte euren emaitzak eskualdeko hainbat egilek, eta beste askok labetik orain oso gutxi ateratako produktuak eramango dituzte.

Albiste dira azokan bertan salgai ipiniko diren artikuluak. Honakoak dira: Jose Antonio Azpiazu historialari oñatiarraren *Historias de Corsarios Vascos. Entre el Comercio y la Piratería* ikerkuntza lana (Elkarlanean); Resu Abasolo aretxabaletarrak, Juana Lopez de Munain irakasle gasteiztarrarekin batera, idatzitako *Ilunetik argira. Elbira Zipitria* euskarazko hezkuntza gorpuztu zuen irakaslearen biografia (Hik Hasi); eta Arrasateko Txatxilipurdi elkartearen *Salamaleikum Euskal Herrira* mahai-jolasa, bereziki Saharako umeak gurera etortzen direnerako euren hizkuntzan hainbat hitz ikasteko pentsatuta.

Gaur, egubakoitza, aurkeztu du Eneko Barberena arrasateararrak *Lurrunak ez du oraindik kristalik estali* poema liburua, eta Gaztesarea taldeak ipiniko du salgai. Horrekin batera, Gaztesareak *Entseilu Lokala 2* diskoa aterako du. Bergarako Supercools taldearen abesti bat dago.

Pasa den eguaztenean aurkeztu zituzten bi liburu: Luxio Ugarte irakasle oñatiarraren enpresa arloko liburua, *¿Sinfonia o Jazz? Koldo Saratxaga y el modelo Irizar. Un modelo basado en las personas* (Unbe) eta Bitoriano Gandiaga Arantzazuko frantziskotarraren hil ondoko lana, *Adio* (Elkarlanean).

Oñatin jarraituta, Arantzazu argitaletxearen sei bat produktu berri izango dira: esaterako, *Hemen* erlijio aldizkari berria, *Loratsoak* Asisko San Frantziskoren gaineko liburua, Arantzazuko egutegia, musika liturgiko zein herrikoia…

Eguenean aurkeztu dituzte Debagoieneko udalek Kirola Euskaraz fitxa didaktikoak. Horiek ere Durangon izango dira, Foru Aldundiaren eskutik.

ANBOTO

Jo eta sua lanean ibili dira pasa den astean azokako egoitza prestatzeko. Itxura hori zuen atzo, eguena.

RESU ABASOLO / ELBIRA ZIPITRIAREN BIOGRAFOA

"Argitara ekarri dugu Elbira Zipitria irakaslearen bizitza eta jarduna"

Elbira Zipitria irakaslearen biografia idatzi du Resu Abasolok.

Zelakoa da *Ilunetik argira, Elbira Zipitria*?

Lehen zatia bere bizitzaren gainekoa da; bigarrena bere jardun pedagogikoaz da, eta bukatzeko, bera ezagutu zuten hainbaten hitzak, genealogia, kronologia… daude. Luze joan zaigu ikerketa, berak ez zuelako ezer idatzita utzi.

Zergatik liburu hau?

Elbira Zipitriak euskaraz irakatsi nahi izan zuen eta klandestinitatean bizi izan zen horregatik. Ordua zela pentsatu dugu hori argitara ekartzeko: zein eta nolakoa zen Elbira eta nolakoa zen bere jardun pedagogikoa.

Resu Abasolo aretxabaletarra.

XABIER UGARTE / AITA MADINAREN DISKOAREN BULTZATZAILEA

"Disko honetako Aita Madinaren piezak samur ulertzekoak dira"

Aita Madinaren *Pianorako musika* diskoa koordinatu du Xabier Ugartek.

Zertan dira bereziak diskoko piezak?

Guk Aita Madina elizako musikari legez ezagutzen dugu, baina arlo asko jorratu zituen. Pieza hauen berezitasuna da laburrak direla, melodia garbikoak eta entzuleak samur ulertzekoak.

Aita Madinaren lana zabaltzeko besterik egingo duzue?

Bai, jakina. Bere lanarekin beste 8-10 disko egiteko materiala dago. Bestalde, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak bere bi disko argitaratuko ditu. Ea hala Aita Madinaren musika hedatzea lortzen den.

Xabier Ugarte oñatiarra.

MUSIKA

Azken hilabeteotan, ibarreko idazle, musikari, udal zein elkarteek lan asko plazaratu dituzte.

Hiru Truku berpiztu dute Ruper Ordorika, Joseba Tapia eta Bixente Martinezek; *Nafarroako Kantu Zaharrak* diskoa (Metak) azokan izango da. Baita Juan Carlos Irizar oñatiarraren *Mendiak* partitura liburua ere, izen bereko diskoaren osagarri.

Ezohikoa da oso beste oñatiar baten, Aita Madina zenaren, *Pianorako Musika* diskoa (ausArtRecords); izan ere, musikari hark elizarako eta organorako musika idatzi zuen batik bat, eta pieza horiek bereziak dira, eta orain urte gutxi aurkituak.

Azkenik, Foru Aldundiak egin duen *Gaztemaniak* bilduman Sharon Stoner eta Potemkin talde oñatiarrak agertzen dira.

LITERATURA

Gureko idazleak ere emankorrak izan dira azkenaldian. Orain aste bi aurkeztu zuen Txalaparta argitaletxeak *Lehenengo aldia* ipuin erotiko liburua; Diego Martiartu arrasatearraren ipuin bat jasotzen du horrek. Saltokietara atera berria da baita Oskar Arana aramaioarraren *Lotsaizuna* ere, J.M. Coetzeeren *Disgrace* nobelaren itzulpena (Elkarlanean).

Azkenik, Andoni Urtzelai aretxabaletarrak udan aurkeztu zuen *Zirkulua* nobela (Erein) ere azokan izango da.

UDALAK ETA EUSKALGINTZA

Badihardugu euskara elkarteak eta Topagunea euskara elkarteen federazioak eramango dute gureko euskalgintzaren ekarpena. Topagunearen postuan, Debagune elkartearen 2005eko egutegia izango da; baita Laixan elkartearen Gu eta Gure Hizkuntzak jaialdiko DVDa eta hiztegia eta Txatxilipurdiren bi mahai-jolas ere. Badiharduguk, bestalde, eskualdeko udalek aukeratutako ikerketa, historia... lanak eramango ditu. Horietatik bi aurten ateratakoak dira: Oñatiren gaineko *Oñati, iragana, oraina eta geroa* DVDa eta Eskoriatzako Udalaren *Idatziak* euskaraz idazteko laguntza liburuak, beste 30 bat produkturekin batera.


Diego Martiartu.

Jose Antonio Azpiazu.

Eneko Barberena.


Bitoriano Gandiaga.

Ruper Ordorika.

Juan Carlos Irizar.

Luxio Ugarte.

Oskar Arana.

Andoni Urtzelai.

Durangoko azokaren bueltan

Durangoko azokan ez, baina datozen hilabeteotan zeresana izaten jarraituko dute Debagoieneko beste egile batzuek. Izan ere, hainbat debagoiendar lanean ari dira buru-belarri euren liburuak eta diskoak lehenbailehen plazaratu ahal izateko.

Hori da Juan Martin Elexpuru idazle bergararraren kasua. Bergarako hizkeraren gaineko hiztegia prestatzen ari da, Udalaren eskutik, eta laster gertu egongo da. Aurtengo azokan, Elexpuruk orain arte idazle zein itzultzaile bezala egindako liburuak izango dira; baita berak zuzentzen duen *Literotura* liburu erotikoen bildumako zenbakiak ere (Txalaparta).

Azokaren ondoren izango dugu baita Amaia Diaz de Monasterioguren elikadura aditu oñatiarraren berri ere, bere liburua *Diruak behar luke bihotzik* entseguak, hain zuzen; aurten saritu duten arren, ibarreko kooperatibismoaren gaineko lana datorren urtean egongo da gertu.

Musika aldetik, Oñatiko Ganbara abesbatza diskoa prestatzen ari da eta espero dute hemendik oso gutxira bukatuta edukitzea. Talde hori ere albiste izango dugu, hortaz, etorkizunean.

Danbaka: Publikoaren Saria

Hemen, orain arteko sailkapena.
Bidali mezuak:
danbaka [laga tartea] taldearen izena eta bidali 7744 zenbakira.
SMSaren kostua 0,90 euro+BEZ

1	**ENBOSKADA**	ARRASATE Botoen %21,4
2	**DENIAL**	ARRASATE-ARETXABALETA Botoen %16,4
3	**STUKAS**	BERGARA Botoen %8,7
4	**OZEN**	ARRASATE Botoen %8,6
5	**POTEMKIN**	OÑATI Botoen %5,6
6	**MALENKONIA**	OÑATI Botoen %5,4
7	**JIM TNT**	ARRASATE Botoen %4,7
8	**AMONAL**	OÑATI Botoen %4,7
9	**ISAREVOLUTION**	ARRASATE-ESKORIATZA Botoen %4,1
10	**IZAS**	ELGETA Botoen %3,5
11	**MATXURA**	ELGETA-SORALUZE Botoen %3
12	**SHARON STONER**	OÑATI Botoen %2,8
13	**DIXIE 900**	BERGARA Botoen %2,8
14	**SUPERCOOLS**	BERGARA Botoen %2,4
15	**N_OPH**	ARRASATE Botoen %1,8
16	**LOS CRETINOS**	ARRASATE Botoen %1,2
17	**OSTIADA OI!**	ELGETA-ARRASATE-BERGARA Botoen %0,9
18	**NEURE BAITAN**	ARRASATE Botoen %0,8
19	**TURBOAMOR**	ARRASATE Botoen %0,7
20	**MUTED**	ARRASATE Botoen %0,4

DANBAKA

Txuringo
Jatetxea

Osintxu
Tel.: 943 76 48 63

NEGUAN
Igandeetan itxita,
baina enkarguak hartzen dira

- **Menua**
- **Asteburuetan menu berezia**
- **Ehiza**
- **Enkarguz:**
  - **Babarrun-jana**
  - **Arkume errea**
  - **Txerrikumea**

OHARRA
Iker Sukalde Altzarien bezeroei eta irakurleei zuzendua

Joan zen egubakoitzean, azaroak 26, GOIENKARIArekin batera argitaratu zen Dekorazio gehigarrian, Iker Sukaldeak-en iragarki bat oker kaleratu zen.

Uztaileko promozio bat jakitera eman genuen (%20ko deskontua sukalde altzarietan) eta promozio hori ez dago indarrean gaur egun.

Honen bitartez, barkamenak eskatu nahi dizkiogu iragarleari eta irakurleei.

GOIENKARIA

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko abenduaren 3a

Abenduak 3-10

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

DEIAK

ARRASATE

► **Arrasateko eta inguruetako margolarien lanen erakusketa eta salmenta** antolatu du Harreman GKEk gaur, abenduak 3, hasi eta hilaren 24ra bitartean, Monterronen. Gaur, egubakoitza, inauguratuko dute erakusketa Goikobaluren emanaldi batekin, San Frantziskon, 20:00etan. Bildutako dirua San Clemente laguntza proiekturako izango da.

► **Euskal Herrian Euskaraz** taldeak kontzentrazioa egingo du gaur, egubakoitza, Herriko plazan, 12:00etan, Euskararen Eguna dela eta.

► **Arrasateko Akordeoi Lehiaketak** jokatuko dira gaur, egubakoitza, hasi eta etzira, domeka, bitartean. Nazioarteko lehiaketa, Gipuzkoako lehiaketa eta Akordeoi jaialdia izango dira. Jendaurreko itxiera gala eta sari banaketa etzi, domeka, izango da Amaia Udal Antzokian, 20:00etan. Horren barne ere, hainbat musika emanaldi izango dira: gaur, egubakoitza, Kiril Chtybine iazko irabazleak joko du Aretxabaletako parrokian, 20:00etan, eta bihar, ordu berean, Arrasateko parrokian; Joxan Goikoetxeak gaur, egubakoitza, joko du emanaldia Mondragon hotelean, 22:00etan; eta Arraskate Bandek etzi, domeka, Kajoi tabernan, 23:30ean.

BERGARA

► **1986an jaiotakoek** kinto batzarra egingo dute abenduaren 24an. Parte hartzeko, diru sarrera egin behar duzue Euskadiko Kutxako honako kontuan: 30350091300900730. Abenduaren 10a, egubakoitza, da mugaeguna.

ESKORIATZA

► **Eskoriatza Hiria** areto-futbol txapelketa jokatuko dute martitzenean, hilak 7, kiroldegian, 19:00etan.

OÑATI

► **Kanta afaria** antolatu du Laixan elkarteak, eta izenematea zabalik dago hilaren 10 arte, egubakoitza, 943 71 63 11 telefonoan eta *laixan@topagunea.com* helbidean.

LEHIAKETAK

ARETXABALETA

► **Erakusleiho lehiaketa** deitu du Udal Kultura sailak abenduaren 8tik 31ra bitartean. Herriko denda guztiek parte har dezakete.

ARRASATE

► **Erakusleiho lehiaketan** parte hartzeko epea zabalik dago herriko denda guztiendako. Izena emateko, deitu 943 77 09 00 telefonora abenduaren 17a baino lehen. 520 euro banatuko dituzte hiru saritan.

► **Aratusteak iragartzeko kartel lehiaketa** deitu du Udalak. 50 x 70 cm-ko kartel bertikalekin parte har daiteke. Derrigorreko testua da *2005 Haratuzteak Arrasate*. Lanak entregatu behar dira Udal Kultura sailera urtarrilaren 17a baino lehen. 360 euroko saria banatuko dute.

BERGARA

► **XIII. Amodiozko Gutunen Berrigara lehiaketa** deitu du Jardun euskara elkarteak. Lanak Jardunen bulegora bidali behar dira, Errotalde Jauregira, edo *kulturajardun@topagunea.com* helbide elektronikora, urtarrilaren 7a baino lehen. Sari nagusia da 450 euro, eta aurten, 26 urtetik beherako onenaren saria ere egongo da: 100 euro, hain zuzen.

► **Erakusleiho lehiaketa** deitu dute. Abenduaren 10etik 27ra bitartean (biak barne) egon beharko dute prestatuta erakusleihoek. 250 euro eta garaikurra irabaziko dute hiru onenek. Argibideak, 943 77 91 58, 943 77 91 59 (kultura etxea) edo 943 76 04 68 (Bedelkar) telefono zenbakietan.

DEBAGOIENA

► **Hainbat bertso-paper lehiaketa** deitu dituzte. San Antontxu Bertso Paper Lehiaketa deitu du Mungiako Taket elkarteak, bi adin kategoriatan: 18 urtera artekoek 6-8 bertso egin beharko dituzte; 18 urte edo gehiagokoek, 8-12 bertso. Mugaeguna da abenduak 31. Bestalde, Zapirain Anaiak bertso-paper lehiaketa ere zabalik dago. 17 urtetik gorako edozeinek parte har dezake. 750 euro banatuko dituzte bi saritan. Argibideetarako, deitu Errenteriako Lau Haizetara Euskaldunon Elkartera (943 34 01 43).

ELGETA

► **Gabonetako bolo txapelketa** deitu dute, eta lehen saioa bihar, zapatua, izango da, bolatokian, 23:30ean. Hurrengo hiru saioak abenduaren 11, 18 eta 26an izango dira (azken hau 18:00etan).

OÑATI

► **Euskararen Eguna** dela eta, hainbat ospakizun izango dira gaur, egubakoitza, Txantxiku ikastolan: kalejira, herri kirolak, lelo lehiaketa, ipuin kontaketak, kanta ikastaroak…

MUSIKA

ARRASATE

► **3.60 aretoa inauguratuko** dute bihar, zapatua. Lehen Bertize zen aretoa da. Honako kontzertuak antolatu dituzte: Ondarroako UEK taldeak *Ganbaratik* diskoa aurkeztuko du, eta Klineks eta Fjord taldeek ere emanaldi bana egingo dute, 22:00etan. Gero, 04:00etan, DJ Nko, DJ Loren eta DJ Gonzalok musika ipiniko dute. 6 euro da sarrera.

BERGARA

► ***Berriketan*** bertso eta kantu emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Pol Pol tabernan, 22:00etan. Jardun elkarteak antolatu du Euskararen Eguna delako. Bertsolari-kantariak entzuleekin hartu-emana sortzen saiatzen dira, kantuen hitzetan sakonduta, eta entzulea eurekin batera abestera gonbidatzen dute. Euskal kantutegiko abestiak jokatuko dituzte ordu eta laurdenean.

► **The International Noise Conspiracy eta This Girl** musikariek emanaldia egingo dute eguaztenean, hilak 8, Jam aretoan, 20:30ean. Sarrera 15 euro da, 14,5 aldez aurretik erosita.

ELGETA

► **Danbaka musika lehiaketako** laugarren saioa izango da gaur, egubakoitza, Espaloia kafe antzokian, 22:30ean. Cretinos, N_OPH, Supercools eta Ostiada Oi! taldeek joko dute. Sarrera euro baten eros daiteke *www.gaztekutxa.net* webgunean (gehienez ere bi sarrera eros ditzake bakoitzak modu horretara), eta 3 eurotan Espaloian bertan.

ELORRIO

► **Maddi Oihenart eta Josetxo Goia-Aribe** musikariek *Ilhargi Min* diskoa aurkeztuko dute gaur, egubakoitza, Arriola aretoan, 22:30ean. Topagunea euskara elkarteen federazioak antolatu du.

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► **Arte Grafikoa eta Originala** delako erakusketa izango da Iturriotz kaleko 35eko lokalean, honako ordutegian: astelehenetik zapatura bitartean, 11:30-13:30 eta 17:00-20:30, urtarrilaren 15 arte. Honako artisten lanak izango dira ikusteko eta erosteko: Zumeta, Chillida, Goenaga, Koldobika Jauregi, Balliache, Dora

► ANTZERKIA

HIRU EMAKUME LANGILEREN GOGOETA IRONIKO ETA UMORETSUAK

Hiru emakumek, garbitzaileak lanbidez, maitasunaz, familiaz, sexuaz, ilusioez… buruan darabiltena entzutera gonbidatzen gaituzte. Garbitzaileek greba egitea erabakitzen dutenean hasten da istorioa, nahiz eta grebaren zergatia oso argi ez egon. Elkarren artean berbetan hasiko dira, eta ironiaz betetako elkarrizketa horren lekuko izango dira Eskoriatzara *Greban Gaude* antzezlana ikustera joaten direnak. *Elena*, usadio zaharreko baina jarrera harrigarrietako emakumea; *Arantxa*, sentibera eta negartia, tanatorio bateko garbitzailea; eta *Jaione*, abokatua ikasketaz baina abokatu bulego bat garbitzen diharduena, ezagutzeko eta horiekin barre egiteko aukera izango da. Lakrikun taldeak egingo du antzezlana.

Non: Eskoriatzan, unibertsitatean. **Noiz:** gaur, egubakoitza, abenduak 3. **Ordua:** 22:30ean. **Sarrera:** doan.

GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA
Boni Laskurain 3
BERGARA
943 76 35 71

Laser bidezko depilazioa

Ile kalitate bakoitzerako laser bat:
- **Alexandrita laserra:** ile mehe eta argiendako
- **Neodimio Yag laserra:** ile lodi eta ilunendako

Gainbegiratze espezializatua

Proba DOAN ordua eskatuta

Eguzkitza erretegia
ZABALIK

Santa Luzia
Abenduaren 11
Menu berezia
33€

Gorde ezazu lekua!
Aranerreka 30, BERGARA
943 76 97 01

Salazar, Iñaki Epelde, Keixeta, Mari Jose Rekalde eta Juan Sukibide.

► **Maritxu Kajoi gauean** Gure Leku tabernan ateratako argazkiekin murala ipini dute. Hortaz, gau horretan Gure Lekun egon zirenek euren burua iruditan ikusteko aukera dute. Otalora kaleko taberna horretan dago murala, egunero, zapatuan izan ezik. Abendu erdialdera arte izango duzue argazkiok ikusteko modua.

BERGARA

► **Juan Gonzalez Cuesta** bergararraren margolan erakusketa dago Nahikari tabernan, Masterreka kalean, abendu osoan. 15 bat oliok osatzen dute bilduma. Euskal Herriko paisaiak dira.

ESKORIATZA

► **Euskarazko jostailuen eta CD-ROMen** erakusketa izango da hilaren 9tik 12ra bitartean kultura etxean, honako ordutegian: astegunetan, 18:30-20:30; asteburuetan, horrez gain, 12:30-14:00 ere.

OÑATI

► **Bingen de Pedro** bergararrak bere margolanen erakusketa du zabalik abenduaren 12ra bitartean, kultura etxean, egunero, 18:30-20:30.

IKASTAROAK

ARETXABALETA

► **Sukaldaritza makrobiotiko** ikastaroa deitu du Loramendi euskara elkarteak abenduaren 14rako. Izenemate epea zabalik dago.

IKUSKIZUNAK

ELGETA

► ***01-09-11 Kuban*** delako diapositiba emanaldia egingo du Bixente Askasibarrek eguenean, hilak 9, Espaloia kafe antzokian, 20:00etan.

ANTZERKIA

ARRASATE

► **Alex Barredo antzezleak** umorezko bakarrizketa egingo du gaur, egubakoitza, Iamai tabernan, 00:00etan, tabernak antolatu duen antzerki zikloaren barne. Sarrera, doan.

Zinema

ARAMAIO

■ **KULTURA ETXEA**

El rey Arturo
Egubakoitza: 22:30.

Shrek
Martitzena: 22:30.

ARRASATE

■ **AMAIA ANTZOKIA**

Ez dago emanaldirik.

BERGARA

■ **NOVEDADES**

Crimen ferpecto
Egubakoitza: 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Eguaztena: 17:00.

Bombon, el perro
Zapatua: 22:30.
Martitzena: 22:30.

Melinda y Melinda
Zapatua: 17:00, 19:30.
Astelehena: 17:00, 19:30, 22:15.
Eguaztena: 19:30, 22:15.
Eguena, zinekluba: 20:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

ELGETA

■ **ESPALOIA**

Ez dago emanaldirik.

OÑATI

■ **KULTURA ETXEA**

Crimen ferpecto
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.

Spy kids 3D
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.
Eguaztena: 17:00.

El diario de Noa
Astelehena: 19:30, 22:30.
Martitzena: 22:30.
Eguaztena: 19:30, 22:30.

Lost in Translation
Eguena, zinekluba: 20:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ **UNZAGA**

La búsqueda
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua, domeka eta astelehena: 17:00, 19:30, 22:15.
Martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **RIALTO**

Los increíbles
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua, domeka eta astelehena: 17:00, 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

La búsqueda
17:30, 20:00, 22:30.

Los increíbles
17:30, 20:00, 22:30.

Dos hermanos
17:30, 20:00, 22:30.

Bridget Jones: sobreviviré
17:30, 20:00, 22:30.

El asombroso mundo de Borjamari y Pocholo
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

Alien vs. Predator
17:30.

La sentencia
20:00, 22:30.

Polar express
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:15, 18:20, 20:30, 22:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

Mar adentro
20:00, 22:30.

Sobreviviendo a la Navidad
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:45.

Anacondas
17:15, 20:00.

Los increíbles
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:45.

El lobo
17:15, 22:30.

El asombroso mundo de Borjamari y Pocholo
17:15, 20:00, 22:30.

Diarios de motocicleta
20:00, 22:30.

Alien vs. Predator
17:15.

Bridget Jones: sobreviviré
17:20, 19:50, 22:35.

Polar express
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:45.

La búsqueda
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:45.

Eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

Los chicos del coro
17:00, 19:45, 22:30.

La luna de Avellaneda
17:00, 19:45, 22:30.

Frío sol de invierno
19:45.

Cosas que hacen que la vida valga la pena
17:30, 10:00, 22:30.

Supertramps
18:30.

Contra la pared
17:30, 20:00, 22:30.

El lobo
20:00, 22:30.

Un toque de canela
17:30, 20:00, 22:30.

Shall we dance?
17:00, 22:30.

■ **ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

Di que sí
22:30, 01:00.

Polar express
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Dos hermanos
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Una Navidad de locos
16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

Los increíbles
15:50, 18:10, 20:25, 22:45, 01:00.

Cosas que hacen que la vida valga la pena
20:15, 22:30, 00:45.

Collateral
16:45, 19:30.

La búsqueda
16:30, 19:15, 22:00, 00:40.

El mensajero del miedo
22:05, 00:45.

Alien vs. Predator
16:00, 18:05, 20:15, 22:30, 01:00.

Dos colgaos muy fumaos
16:15, 18:15, 20:20.

Gauerdiko saioak, egubakoitzetik martitzenera. Eguerdiko saioak, egubakoitzetik eguaztenera. Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

Los increíbles
12:15, 15:45, 16:45, 18:00, 19:15, 20:20, 21:45, 22:45, 00:15, 01:00.

Polar express
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

El mensajero del miedo
20:00, 22:30, 00:50.

Anacondas
20:30, 22:30, 00:30.

Cellular
20:35, 22:35, 00:35.

Alien vs. Predator
12:15, 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

La búsqueda
12:15, 16:15, 19:00, 21:45, 00:30.

Bridget Jones: sobreviviré
12:15, 16:05, 18:15, 20:25, 22:35, 00:50.

Collateral
20:05, 22:25, 00:45.

Dos colgaos muy fumaos
12:15, 16:20, 18:20.

Di que sí
12:15, 16:30, 18:30.

Melinda y Melinda
12:15, 16:00, 18:00.

El lobo
12:15, 16:30, 19:00, 21:30, 00:00.

Dos hermanos
12:15, 15:30, 18:00, 20:15, 22:30, 01:00.

El asombroso mundo de Borjamari y Pocholo
12:15, 16:45, 18:45, 20:45, 22:45, 00:45.

Crimen ferpecto
12:15, 16:25, 18:30.

Una Navidad de locos
12:15, 16:00, 18:10, 20:15, 22:20, 00:25.

Gauerdiko saioak, egubakoitz, zapatu, domeka eta martitzenean.

Eguerdiko saioak, domekan.

Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ **ÁBACO BOULEVARD**

La búsqueda
12:00, 16:10, 16:30, 19:00, 19:20, 22:00, 22:15, 01:05, 01:45.

Anacondas
12:25, 16:10, 18:20, 20:30.

Los increíbles
12:00, 12:15, 15:40, 17:00, 18:00, 19:40, 20:20, 22:15, 22:45, 00:45, 01:05.

Polar express
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Dos hermanos
12:00, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:05.

Bridget Jones: sobreviviré
12:10, 16:00, 18:10, 20:25, 22:35, 01:00.

El asombroso mundo de Borjamari y Pocholo
12:10, 16:15, 18:15, 20:20, 22:25, 00:30.

Los chicos del coro
12:20, 16:20, 18:25, 20:30, 22:40, 00:45.

Shall we dance?
22:35, 01:00.

El lobo
12:10, 17:10, 19:50, 22:30, 01:05.

Alien vs. Predator
12:20, 16:05, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitzetik martitzenera. Eguerdiko saioak, domeka, astelehen eta eguaztenean. Eguaztena, ikuslearen eguna.

Melinda y Melinda: ●●●● / ***Crimen ferpecto:*** ●●● / ***Collateral:*** ●●● / ***Mar adentro:*** ●●● / ***Conociendo a Julia:*** ●● /

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

COSAS QUE HACEN QUE LA VIDA VALGA LA PENA

PUNTUAZIOA: ●●●

ZUZENDARIA: Manuel Gomez Pereira.
AKTOREAK: Ana Belen, Eduard Fernández.

Manuel Gomez Pereira zinemagilea ederki moldatzen da komedia generoan. Egindako film batzuk beste batzuk baino hobeak izan badira ere, gehienetan, komediaren tempoak eta erritmoak ondo erabiliak izan dira. Erritmoarekin ez dugu abiadura bakarrik aipatzen, eszena eta momentu bakoitzari, dramatikoa edo komikoa, behar duen iraupena ematen jakitea: nahi diren ondorioak eta atmosferak lortzeko eta aktoreak euren pertsonaiak gustura lantzeko eta sortzeko ere erritmoaren esanahian sartzen da. Hori dena *Cosas que hacen*-en gertatzen da. Komedia gazi-gozoa da; alde batetik, pixka bat tristea: frustrazioak, beldurrak eta arazoak dituzten pertsonaietara hurbiltzen delako; horien eraginez, itxaropena galdua edo galtzeko zorian dauden pertsonaiak badira. Istorioa ia antagonikoak diren bikote bat elkartzen du (bateraezina dirudien, baina elkarrekin bizitzera predestinatua dagoen bikotearen gatazkak Hollywoodeko komedia klasikoaren ezaugarri garrantzitsu bat da). Horien arteko momentu dramatikoak eta barregarriak erabiliaz, ederki erakusten digu harreman horien bilakaera; eta beste alde batetik, baikorra da: filmak ez badu bizitzaren alde latza ukatzen, etsipenean ez jausteko aldarrikapena da. Ateak ez ixteko esaten digu eta sortzen diren aukerei etekina ateratzeko, filmaren izenburuak argi eta garbi esaten duen bezala, bizitzan sortzen diren gauza txikiei, hain zuzen ere.

Cosas que hacen que... filmaren egileak oso ondo daki jokatzen drama eta komediarekin, ederki erabiltzen ditu pertsonaien barneko ahotsa, horien pentsamenduak eta nahasketa adierazteko, eta batez ere, zuzendariaren eta aktoreen artean sortutako kimika. Zuzendariak aukera ematen die pertsonaiak aberasteko eta horien xehetasun guztiak kanporatzeko (aldi berean, ahulak eta indartsuak dira); komikoak diren tarteak bultzatzeko eta pertsonaien intentsitate dramatikoa eta alde samurra ere azaltzeko. Ana Belenek, *El amor perjudica seriamente la salud*-en egin zuen bezala, argi eta garbi komedian oso ondo moldatzen dela erakusten du, eta Eduard Fernandezek Espainiako aktore onenen artean dagoela frogatzen du.

ANTONIO ZABALA

INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
• Erdialdea 80 m². Eguzkitsua.
• Erdialdea 85 m². Berritzeko.
• Martoko 85 m². Eguzkitsua.
• Zubiaurre 45m². Berrituta.
• San Pedro 150m². Ondo.
• Zubieta 70 m². Eguzkitsua.
Antzuola:
• Hamaika etxebizitza eraikin berrian. Garajea aukeran.
• Erdialdea 88 m². Berria.
Elgeta:
• Duplexa 140 m². Berria.
Soraluze:
• Erdialdea 57 m². Berrituta.
BASERRIAK SALGAI
• Elosun, Osintxun, Angiozarren, Soraluzen eta San Juanen.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

ETXEBIZITZAK SALGAI
BERGARA:
•Erdialdea 86 m². Etxe berria.
•Masterreka 75 m². Berrituta.
•Erdialdea 90m². Oso ondo dago.
•Erdialdea 78 m². Berrituta.
•San Anton 67 m². Berrituta.
•Zubieta 70 m². Eguzkitsua.
•Erdialdea 75 m². Ganbara.
ANTZUOLA:
•11 etxebizitza berri.
ELGETA:
•140 m². Duplexa. Berria.
SORALUZE:
•Errekalde 82 m². Ondo dago.
•Rabal 42 m². Ondo dago.
BASERRIAK
•Angiozar 600 m² eta lursaila.
•Elosua 246 m². Egoera onean.

Iragarki sailkatuak

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71
sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 15 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ARAMAIO
ZERBITZARIA BEHAR DA ASTE BUKAERETAN LAN EGITEKO. EUSKARA JAKITEA EZINBESTEKOA. 945 44 50 86

ARETXABALETA
SUKALDARIA EDO SUKALDARI LAGUNTZAILEA BEHAR DA JATETXE BATEAN. 675 71 62 67

BERGARA
PERTSONA BEHAR DA EGUNERO TABERNAN LAN EGITEKO. 943 76 20 61

DEBAGOIENA
ITZULPEN BULEGOAN LAN EGITEKO PERTSONA BEHAR DA. INGELESA JAKIN ETA ORDENAGAILUA ERABILTZEA BEHARREZKOAK. 943 79 25 75

ARETXABALETA
SUKALDARI LAGUNTZAILEA BEHAR DA ASTE BUKAERETAN LAN EGITEKO. 647 05 42 75

BERGARA
ZERBITZARIA BEHAR DA. 659 05 63 82

BERGARA
PERTSONA BEHAR DA DENDAN LAN EGITEKO, ABENDUAREN 15ETIK URTARRILAREN 5ERA. 943 76 13 23

ARRASATE
KAFETEGI BATEAN EMAKUMEA BEHAR DA GARBITASUN LANAK ETA HARRIKOA EGITEKO. 635 73 27 74

Garbi S.L.
PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.
943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Etxebizitza salgai Ibarran. Oso eguzkitsua. 63 m². Berrituta. Bizitzen hasteko moduan. Merke. 945 44 53 99.

Aramaio. Etxebizitza salgai. Ortua dauka. Txoko edo trasteleku bihurtzeko erdi-sotoa dauka. Deitu 18:00etatik 22:00etara. 615 73 91 28.

Aretxabaleta. 60 m², bi logela, sukalde ederra, ganbara. Eguzkitsua, berritua. 195.328 euro. (Idoia). 680 35 61 48.

Arrasate. 142 metro koadro. Erguin auzoan. 635 73 27 74.

Arrasate. Apartamentua erdialdean. 80m². Berrituta. 210.000 euro. 605 71 37 77.

Arrasate. Erguin auzoan. 60 m². Sukaldea, egongela, bainugela, hiru logela. Bi terraza. 615 75 04 72.

Arrasate. Galizia kalean. 58 metro koadro: bi logela, sukalea, egongela, atondoa eta komuna. Soto eta guzti. Guztiz berritua eta jantzia. 665 72 71 65 edo 655 71 86 13.

Arrasate. Uribe auzoan. 80 m². Erabat berriztatua. Garajea, trastelekua eta ganbara ditu. 659 77 18 57.

Benidorm. Etxebizitza saldu edo errentan emango nuke. Itsasora begira. Igerilekua, tenis pista eta parkea ditu. 639 41 84 65.

Bergara. Bi solairuko etxebizitza salgai erdialdean, hirugarren solairuan. Lehenengo solairua berritua. Bigarren solairua trastelekua da. 209.753 euro (34.900.000 milioi pta). 605 73 37 39.

Bergara. Erdialdean. 72m². 605 74 30 83.

Elgeta. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela galanta. Lau hormaarmairu. 34 milioi pezeta. Telefonoa: 627 75 91 75 edo 629 85 34 60.

Oñati. Kale Zaharrean etxebizitza salgai. 69 m². Hiru logela, ganbara eta ortua. 943 78 13 47 edo 943 76 24 15.

Soraluze. Eraikin berria. Garajearekin eta teilatupearekin. Bi logela, bainua, sukaldea eta egongela. 666 69 27 69.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Iturriotz kalean. 605 75 54 52.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bikote nafar bat etxebizitza errentan hartzeko gertu. Urgentea da. 635 70 31 01.

Arrasate. Erdialdean etxebizitza errentan hartuko nuke, bi logelarekin. 630 47 35 30.

Arrasate. Etxea hartuko nuke errentan. 2005. urte osorako. 615 00 32 31.

Bergara. Etxea hartuko nuke errentan. Bi logelakoa. 690 74 01 59.

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke. 628 22 30 03.

Bergaran edo inguruan etxebizitza errentan hartuko genuke. 943 53 27 17.

Oñati. Etxea errentan hartuko nuke. 610 24 01 38 edo 943 71 80 12.

105. ETXEAK OSATU

Gasteiz. Gasteiz hiribide inguruan dagoen Gorbeia kalean etxebizitza osatzeko neska behar da. 337 euro. 665 72 20 85.

2/ GARAJEAK

202. EROSI

Oñati. Garaje bat erosi gura nuke, Olakua edo San Lorenzo inguruan. 652 71 76 81.

4/ LANA

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Neska bat propaganda banatzaile lan egiteko prest. 675 00 98 14.

Banatzaile lana egiteko gertu dago mutil bat. Telefonoa: 943 76 71 93.

Bergara edo Antzuola. Neska arratsaldez edo aste bukaeretan etxeko lanak egiteko, edadetuak zaintzeko edo tabernan lan egiteko gertu. Esperientziaduna. (Elena). Telefonoa: 699 31 91 89 edo 943 76 63 10.

Bergara. Neska goizetan lan egiteko prest. 699 71 28 97.

Bergara. Neska lanerako prest. 685 70 46 97.

Debagoiena. Emakumea arratsaldez lan egiteko gertu. 696 84 19 51.

Debagoiena. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko nahiz haurrak zaintzeko goizetan, orduka. Marian. 650 10 02 10.

Debagoiena. Gizonezko bat lan bila dabil. Lorazain, garbitzaile, zerbitzari edo sukaldari lanak egingo lituzke. 639 08 30 59.

Debagoiena. Gizonezko bat lan bila dabil. Lorazain, garbitzaile, zerbitzari edo sukaldari lanak egingo lituzke. 645 72 92 87.

Debagoiena. Mutil gaztea lanerako gertu. 690 74 01 59.

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. 615 76 83 48.

Debagoiena. Neska arratsaldez lan egiteko gertu. Adineko pertsonak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. 655 71 04 20.

Debagoiena. Neska gertu edozein lanetarako. 941 21 00 07.

Debagoiena. Sukaldaritza ikaslea eguen, egubakoitz, zapatu gau eta domeketarako lan bila. Telefonoa: 606 36 29 27.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Bergara. Eskolak ematen dira eguerdietan. Telefonoa: 647 62 93 13.

Oñati. Neska batek DBHrainoko eskola partikularrak emango lituzke. Telefonoa: 943 78 31 26.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Ford Escort 1.8 TD 90 ZP autoa salgai. Familiarra. Zortzi urte. Deitu 10:00etatik 21:00etara (Javi). Telefonoa: 667 47 21 42.

Ford Escort XRI 16V. 115 ZP. 1998koa. Arakis. Telefonoa: 679 91 89 01.

Golf GTI autoa salgai. SSAF, egoera onean. Telefonoa: 652 77 71 08.

Kawasaki KLE trail motoa salgai. Egoera onean. 1.650 euro. 659 04 20 99.

KTM Exc 250 motorra salgai. 2003koa. 4.500 euro. 636 84 96 97.

Mercedes Vito 110TD Combi L. 3 urte. Aire girotua, itxitura zentralizatua. 70.000 km. 16.500 euro. Telefonoa: 616 81 15 96.

Mercedes Vito furgoneta. 2000. urtekoa. Azterketa guztiak pasatuta. Oso ondo dago. 10.500 euro. (Elvio). Telefonoa: 627 54 66 40.

Opel Astra GSI automobila salgai. 1992koa. 1.800 euro. Deitu telefonoa honetara: 679 18 45 49.

Opel Astra salgai, 1992koa. 1.400 gasolina. Bi ate. Gris kolorea. Egoera onean. 1.500 euro. 646 09 52 44.

Opel Corsa salgai. 1.4 gasolina. 10 urte. Egoera onean. 635 75 62 79.

Opel Frontera autoa salgai. 5 urte. 66.000 kilometro. Egoera onean. 699 28 29 28.

Opel Kadett 1.600 autoa. Bost ate. 675 17 43 89.

Scooter 49. RF Suzuki. 943 76 71 93.

Suzuki Vitara autoa salgai. 1.6 16 v. Egoera onean. 6.900 euro. 650 71 03 22.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Antzinako kamera. XX. mende hasierako Kodak argazki kamera salgai. Apaingarri egokia. 100 euro. 696 76 38 42.

Baserriko urrak salgai. 646 09 52 44.

Emaztegai-soinekoa salgai. Neurria: 38. 2004koa. Oso polita. Prezio negoziagarria. 666 04 15 97.

Erakusmahai eta idazmahai bana salgai. Antigualeko itxurazkoak. 943 76 30 01.

Eskanerra. Agfa Arcus II eskaner profesionala salgai. 943 76 99 76.

Jaunartzeko marinel jantzia salgai. Iaz erabilitakoa. 627 84 85 88.

Kamara digitala salgai. Samsung Digimax 301. 3.2 mega pixel. 16 MB-eko barne-memoria. Berri-berria. Gauez deitu. 686 20 03 58.

Kiwiak eta babarrunak salgai. Kalitate ona. 943 78 70 52.

Kiwiak salgai Oñatiko Iraban baserrian. 10 kiloko kaxak. Kalitate-prezio ona. Deitu 18:00etatik 20:00etara. 943 78 18 32.

MP3 aparailua salgai. Estreinatu gabea. 627 84 85 88.

Ordenagailu pantaila. 17"-ko Apple pantaila salgai. Mac eta PCrekin erabilgarria. 943 76 99 76.

Pentium 21 ordenagailua salgai, estreinatu gabea. Inprimagailua, soinu-txartela eta CD-Roma ere baditu. 627 84 85 88.

802. EROSI

Piragua. Bigarren eskuko piragua erosiko nuke. 943 77 19 98.

803. EMAN

Bi artzain txakurkume oparitzen ditut. 943 76 35 58.

804. HARTU

Bergara. Gazte batzuek lokal baterako etxeko sofa, telebista edo beste edozein altzari hartuko lukete. 665 40 42 43.

806. GALDU

Betaurreko graduatuak, marroi kolorekoak, galdu nituen Oñatin, orain dela bi aste, Bidebarrietatik Olarako bidean. Aurkitu badituzu, deitu!. 605 73 53 40.

807. AURKITU

Forru polarra aurkitu dut Aloñako maldetan. 943 78 16 88.

808. BESTELAKOAK

Jdbug markako patinetea ahaztuta utzi nuen Marko dendaren aurrean Bergaran. 943 76 24 33.

4x4
aukera zabalena

Saltzeko eta erosteko
•
Nahi duzun modeloa ez badaukagu, bilatu egingo dizugu
•
Ia berriak eta bigarren eskukoak (bost urte baino gutxiagokoak)

4QUATTRO4
ZABALDU BERRIA!
4QUATTRO4
Aukerako 4x4 ibilgailuak
Musakola auzoa 21 (Roneo parean)
ARRASATE

Tel.: 605711576 eta 943 79 52 32
E-posta.: 4quattro4@telefonica.net

AIPAGARRI

Andoni Salamero

OÑATI

Liburua idatzi du Andoni Salamero Elkar Hezi ikastetxeko euskara irakasleak. *Zu.Ni.Bi.Bidean...* da liburuaren izenburua, eta poesia liburua da. Josi Labajosek gaztelaniaz idatzi du beste liburu bat, eta Ana Remirorekin batera, poesia, musika eta dantza ikuskizuna prestatu dute.

Aitor Zabaleta

BERGARA

Aitor Zabaleta pilotu bergararrak Euskadiko Txapelketa irabazi du auto igoeran. Sei proba izan ditu txapelketak, eta erregularTasun handia erakutsi du; bi irabazi egin ditu eta beste hirutan bigarrena izan da. Azken proba domekan jokatu zuten Jaizkibelen eta bigarren egin zuen Aitorrek.

Nagore Iñurrategi

BERGARA

Kirol egokituko monitore eta irakasleendako fitxa didaktikoak egin ditu kirol egokituko irakasle Nagore Iñurrategi bergarar gazteak. Fitxak CD batean ere bilduta daude, eta argitaratu duten karpeta berean dator. Marrazkiak Iñaki Muxika bergararrak egin ditu.

HILDAKOAK

Anjela Barcala Sanchez. Antzuolan, azaroaren 25ean. 88 urte.
Juana Sanchez Piñeda. Bergaran, azaroaren 25ean. 67 urte.
M. Anjeles Mendizabal Basauri. Bergaran, azaroaren 25ean. 75 urte.
Simon Lasaga Belategi. Aramaion, azaroaren 25ean. 92 urte.
Jabier Bikuña Igartua. Oñatin, azaroaren 26an. 75urte.
M. Josefa Eskibel Larrañaga. Eskoriatzan, azaroaren 26an. 71 urte.
Jazinto Markiegi Laskurain. Bergaran, azaroaren 28an. 88 urte.
Manuel Castro Perez. Arrasaten, azaroaren 28an. 75 urte.
Pilar Abasolo Mondragon. Arrasaten, azaroaren 28an. 90 urte.
Presentación Urtega Yarza. Oñatin, azaroaren 29an. 80urte.

Miguel Salaberri eta **Carmen Urizar** aramaioarrak urrezko ezteiak egin dituzte. 1954ko azaroaren 27an ezkondu ziren, eta zapatuan ospatu zuten 50. urteurrena Arrasaten. Etxekoen partetik, zorionak!

Nerea Korpio abadiñoarra eta **Mikel Iria** arrasatearra abenduaren 4an, zapatuan, ezkonduko dira Abadiñoko Garai auzoko San Migel elizan. Zorionak, etxekoen partetik!

URTEURRENA

Inazio
Zubia Uribarren

Hirugarren urteurreneko meza domekan, abenduaren 5ean, 12:00etan, Eskoriatzako Pedro Deunaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Maxima
Arregi Egidazu
Tomas Leturiaren alarguna

Lehen urteurreneko meza martitzenean, abenduaren 7an, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bautista parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Ignacio
San Vicente Orbegozo

Lehen urteurreneko meza domekan, abenduaren 5ean, 11:30ean, Arrasateko Uribarri auzoko elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

BOLINTXO KIROLAK
Ibargarai 10 BERGARA
Gabonetako eskaintzak
%10
%20
%30
Marka hauetako txamarretan:
HH HELLY HANSEN
Diamir
trangoworld www.trangoworld.com
THE NORTH FACE

• Antzinako egurrezko altzarien zahar berritzea
• Habeen saneamendua
LA VIRGEN DE MURILLO
Bidebarrieta 23, 6.
EIBAR
943 20 16 41

Servimasa
Sukaldeko altzariendako akzesorio eta osagarriak
Tel.: 943 76 19 95
Faxa: 943 76 07 49
BERGARA

www.mjargazki.com
We Use HASSELBLAD
Bataioak
Jaunartzeak
Modazko Book-ak
Estudioko Argazkiak
Industriako.....
MARIA JESUS ARGAZKILARIA
Ezkontza
Erreportajeak
Herriko Plaza 10 - Aretxabaleta 943-771255
DIGITAL PHOTO SERVICE
ZURE ARGAZKI DIGITALAK MOMENTUAN
Orain zure ezkontza erreportajea doan atera ahal zaizu!
Ezkontza erreportajeetan % 30 eko deskontua

HITZGEZIDUNAK

Luma

Pare *Izena			Era hartan Hala ere			Neska gazte
Karrika Jaun bihurtu						
Sendoago egin *Deitura		Joko, olgeta Lausotu, bizkaieraz				
			Blgarren bokala Roentgen		Kiloa Irakasten duena	
Tamaina Sama, lepo						
			Erdi hitz-elkartetan Ekilibrio			
Ongi Kostaldeko zingirak				1. eta 4. bokalak Aluminioa		
						Asiako estatua
Garen hauek Begirada			Enara Letra izena			
		Pluralaren marka Kanpo, landa			Estrontzioa 6. musika nota	
Herri nafarra Karta-joko						
			Euskalduntze Koordinakundea			

BILABILA7





UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaiak argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

BUELTA A FRANTZIAN

Vuelta Frantzia korritzen zan egun aietan. Gilanian, maixan jarritxa, txirrinduzale mordoxka bat zegoan AS errebistia aurrian zeukatela. Koloretako orri asko agertzen ziran Vuelta Frantzia-ko pasadizuak kontatzen. Erdi-erdikuan an ikusten zan ziklista pilla aundi bat. Pelotoian zoiazen. Danak arritxuta geratu ziran fotografixa arekin. An zeguan Markox be, tente, adurra darixola txirrindulari pilla aura ikusten. Batek esan zeban:

- Onek goruntz ala beruntz joiazak?

- Orrek? Beruntz –esan eban Markoxek–.

- Zelan dakik ori?

- Pedalari emon barik joiazak-eta.

BELIA ANTIAJUEKIN

Baziarduan Belia-k, Alfan, esmeril arrixan kutxillua zorrozten. Baiñan antiojo barik. Onetan pasau da andik Biteri medikua eta diñotsa:

- Antiojo barik ago. Olan eztitxuk egongo ba azidentiak!

Eta Belia-k:

- Nik bajakixat ik zer nai duan: Belia antiojuekin ikustia.

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola

Euskara bultzatzeko zein elkarte sortu zen 1927an Arrasaten?

Xabierko Frantziskoren eguna, Euskararen Eguna, dugu gaur, abenduaren 3a. Eusko Ikaskuntzak 1949an izendatu zuen abenduaren 3a, Nazioarteko Euskararen Egun. Edozein modutan, 1949 aurretik ere ospatu izan ziren Euskararen Egunak, abenduaren 3an ez baziren ere. Eta horietako batean sortu zen 1927. urtean Arrasaten euskal prentsa sustatu eta euskara eta euskal literatura hedatzea helburu zuen nazio mailako elkarte bat, Gerrara bitartean oso lan garrantzitsua egin zuena. Asmatuko ote zenuke ze izen zuen?

- Euskaltzaleak.
- Euskalgintza elkarlanean.
- Euskaltzaindia.
- Arrasate Euskaldun Dezagun.

Erantzun zuzena: Euskaltzaleak elkartea gerra aurreko euskalgintzaren erreferente nagusia izan zen eta euskararen mundu̇ko oso jende ezagu̇na bi̇ldu zuen: Li̇zardi (argazki̇an), Aitzol, Monzon…

SOLUZIOAK





ASTEKOHOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

ARIES
martxoak 21-apirilak 21

Atzerrira bidaia bat egingo duzu eta jende berria ezagutuko duzu. Gainera, atzerrian inbertsioak badituzu, irabazi handiak emango dizkizute.

TAURUS
apirilak 22-maiatzak 21

Urduri eta beldurti jokatzeak ez du zentzurik; konfiantza handiagoa izan behar duzu zeure buruarengan. Bestalde, edozein proiektu hasi behar duzula ere, ondo zehaztu eman beharreko pauso guztiak.

GEMINI
maiatzak 22-ekainak 21

Arazoak izango dituzu lagun batzuekin, zure borondate onaz aprobetxatuko dira-eta. Bestalde, ahalegin zaitez etxeko lanak banan-banan egiten, eta ez guztiak aldi berean.

CANCER
ekainak 22-uztailak 22

Bizkarreko arazoak izango dituzu, eta horren ondorioz atseden hartu beharko duzu hainbat egunez. Eta, hain zuzen, gaixorik zauden horretan konturatuko zara zein bakarrik zauden.

LEO
uztailak 23-abuztuak 22

Ahalegin zaitez eginkizun batzuk beste batzuen esku uzten; bestela, osasun arazoak izan zenitzake eta lanean gorantz egiteko aukera polita gal zenezake.

VIRGO
abuztuak 23-irailak 22

Oso sasoi egokia da edozein motatako proiektuak abian jartzeko, lana dela edo beste zerbait dela; izan ere, oso gogotsu eta energiaz gainezka zaude.

LIBRA
irailak 23-urriak 22

Nagitasunak eta erosotasunak arazoak eragingo dizkizute, batez ere lanean. Bestalde, bikotekidea badaukazu, asperraldiak beste neska/mutil batzuekin harremanak izatera bultza zaitzake, baina haiekin arazoak bakarrik izango dituzu.

SCORPIUS
urriak 23-azaroak 22

Behar handia duzu aldaketak egiteko: zure itxura aldatzeaz gainera, etxeko dekorazioan ere hainbat aldaketa egingo dituzu.

SAGITTARIUS
azaroak 23-abenduak 21

Jolas egiteko eta aldi berean neska/mutil batekin baino gehiagorekin amodio-kontuetan ibiltzeko duzun joerak eragin zuzenak izango ditu: bikotekide egonkorra badaukazu, hark utzi egingo zaitu.

CAPRICORNUS
abenduak 22-urtarrilak 20

Hobekuntzak lanari dagokionez, batez ere soldatan. Gainera, zure ekimen eta proiektuak aintzat hartuko dituzte nagusiek, eta, hori dela eta, zeure buruarekin seguru eta pozik sentituko zara.

AQUARIUS
urtarrilak 21-otsailak 20

Ez zaude konforme daramazun bizimoduarekin; hori dela eta, hainbat aldaketa edo zehaztapen egin gura izango dituzu. Bestalde, burukomin handiak izango dituzu.

PISCIS
otsailak 21-martxoak 20

Liskarrak eta iskanbilak izango dituzu zure inguru-koekin, batez ere bikotekidearekin; izan ere, joera handia duzu biktimarena egiteko eta gauzak manipulatzeko. Ez baduzu jarrera hori aldatzen, lagunak eta familiartekoak zugandik aldenduko dira.



GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA

Abenduaren 7a: 024 zozketa

Harpidedunen txokoa

Sariak, astero!

Astelehenean, abenduak 7, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Abenduaren 7ko sariak

- **ZUMELAGA** jatetxean bi lagunendako afari zoragarria.
- **EIBAR-GIMNASTIC TARRAGONAKO** partidua ikusteko sarrerak, saridun bakoitzarendako bi.
- Hamar gonbidapen, saridun bakoitzarendako bi, abenduaren 17an Elgetako Espaloia antzokian egingo den **DANBAKA** kontzerturako.

ITSAS-BIDAIA MEDITERRANEOAN!
Bi lagunendako itsas-bidaia zozketatuko dugu. Zorte on!

Laguntzailea: VIAJES IBERIA

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

ESKAINTZA BEREZIA

Harpidetza kuota, 35 euro!

2004 eta 2005 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO **Goienkaria**

astelehenean, **aste bukaera osoa**

023 zozketa saridunak

Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago,
ZORIONAK!

Joseba Zubizarreta Mujika
Arrasate
SARIA: PANASONIC DVD-A160EC

Hamar gonbidapen, saridun bakoitzarendako bi, abenduaren 3an Elgetako Espaloia antzokian egingo den DANBAKA kontzerturako.

- Xabier Alberdi Agirre (Bergara)
- Amaia Abarrategi Aranburuzabala (Arrasate)
- Joseba Rementeria (Bergara)
- Gaizka Arregi Urtzelai (Oñati)
- Lurdes Larrañaga Iturbe (Arrasate)
- Andoni Azkargorta Martin (Eskoriatza)
- M. Karmen Madinabeitia Arriaran (Bergara)
- M. Karmen Arrizabalaga Irasuegi (Arrasate)
- Luis Sebastian Rodrigo (Aretxabaleta)
- Albina Arregi (Arrasate)

‘Filma’

ASTEBURUA / ***ikus beheko taula**



‘Oinak izarretan’

MARTITZENA 7 / **13:30 eta 17:00**

‘Danbaka’

MARTITZENA 7 / **18:45**

‘Danbaka’

EGUENA 2 / **21:30 eta 23:00**

‘Ivanhoe’ gerlari saxoi handiaren abenturak

Ivanhoe-k bere jaioterrira itzuli nahi du, bere aitaren barkamena lortu nahi duelako. Berarentzat hitzartuta zeukan ezkongaiari uko egin zion *Ivanhoe*-k, eta bere aitaren izena zikindu. Gerlari handiaren abenturak, asteburu luze honetarako.

Saharako desertua zeharkatuko dute

Saharako desertua zeharkatzeko abenturari ekin zion *Oinak izarretan* saioko lantaldeak 2001eko udazkenean. Tunisiako itsasertzean hasi eta Aljeria eta Nigerren ibili ziren Alberto Iñurrategi, Jon Lazkano eta Jon Beloki.

N_OPH bikotearen doinu dantzagarriak ‘Danbaka’-n

Nereak eta Cristoph-ek osatzen dute N_OPH taldea. Doinu dantzagarriak egiten dituzte, elektronikoak. Elgetako eszenatoki gainean zelan mugitzen diren ikusi gura baduzu, adi eguneko *Danbaka* saioari.

Los Cretinos taldeak Elgetako Espaloian egin zuen emanaldia

Rock-and-rola bizirik dagoela erakutsi dute Los Cretinos taldekoek. Eguenean izango duzue aukera, *Danbaka* saioan, Arrasateko taldearen kontzertua ikusteko. Lehenengo emanaldia 21:30ean eta bigarrena 23:00etan.

TELEBERRIAK

ETBk beste sari bat jaso du tratu txarrak salatzeagatik

Gaur Egun eta *Teleberri* saioek emandako erreportaje bildumarengatik aurtengo Emakunde saria eman diote ETBri, Luisa Etxenike artikulugilearekin batera. Sari-emaileen arabera, “ETBk informazio, sentsibilizazio eta zabalpen ahalegin bikaina egin du”.

Adin txikikoak babestuko dituzte telebista kateek

Datorren astean sinatuko dute telebista kateek eta gobernuak adin txikikoak babesteko hitzarmena. Horren arabera, 06:00etatik 22:00ak arte adin txikikoen babesa bermatuko duen edukia emitituko dute. Bereziki, 09:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 20:00ak arteko ordutegian.

ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Abenduaren 3tik abenduaren 9ra

Goitb Goiena Telebista

EGUBAKOITZA 3	ZAPATUA 4	DOMEKA 5	ASTELEHENA 6	MARTITZENA 7	EGUAZTENA 8	EGUENA 9
13:50 **Marrazki bizidunak:** 14:15 **Berriak** 14:45 **Behazulo** 15:15 **Danbaka:** Muted 15:45 **Berriak** 16:15 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:25 **Danbaka tartea** 20:30 **Marrazki bizidunak** 21:00 **Ilunpean:** Josu Iztueta 21:30 **Gure lanbide zaharrak** 22:00 **Berriak** 22:25 **Danbaka tartea** 22:30 **Ilunpean** 23:00 **Gure lanbide zaharrak** Gure kirolak 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	11:00 **Behazulo** 11:35 **Danbaka:** Malenkonia 12:05 **Danbaka tartea** 12:10 **Marrazki bizidunak:** Kalimero 13:30 **Oinak izarretan** 14:00 **Filma:** Ivanhoe 15:00 **Ilunpean** Josu Iztueta 15:30 **Danbaka:** Muted 16:00 **Danbaka tartea** 16:15 **Bi eta bat** 16:45 **Iragana gogoratuz** 17:15 **Klip@** 17:30 **Behazulo** 18:00 **Danbaka:** Malenkonia eta Muted 19:00 **Danbaka tartea** 19:10 **Debarri** 20:15 **Emisio amaiera**	11:00 **Filma:** Ivanhoe 12:15 **Marrazki bizidunak:** Animalikeriak 13:10 **Danbaka:** Muted 13:40 **Danbaka tartea** 13:55 **Oinak izarretan**. 14:25 **Debarri** 15:30 **Gure lanbide zaharrak:** Gure kirolak 16:00 **Filma** 17:00 **Danbaka:** Malenkonia 17:30 **Danbaka tartea** 17:40 **Bi eta bat** 18:15 **Ilunpean** 18:45 **Iragana gogoratuz** 19:15 **Ilunpean** 19:45 **Klip@** 20:00 **Emisio amaiera**	12:05 **Marrazki bizidunak:** Kalimero 12:30 **Danbaka:** Izas 13:00 **Danbaka tartea** 13:10 **Oinak izarretan:** Gasherbrum I: Oinak izarretan berezia 13:40 **Debarri:** Oñati 14:50 **Filma:** Ivanhoe 16:00 **Danbaka:** Isarevolution 16:30 **Danbaka tartea** 16:40 **Bi eta bat** 17:15 **Ilunpean** 17:45 **Iragana gogoratuz** 18:15 **Erakusleiho** 18:45 **Klip@** 19:00 **Marrazki bizi dunak:** Kalimero 19:30 **Emisio amaiera**	12:05 **Marrazki bizidunak** 12:30 **Danbaka:** Malenkonia 13:00 **Danbaka:** Muted 13:30 **Oinak izarretan:** Sahara 14:00 **Iragana gogoratuz** Itzala utzi duten lantegiak 14:30 **Ilunpean:** Gari 15:00 **Filma:** Adarbakar txikiaren kondaira 16:00 **Bi eta ba** 16:30 **Ilunpean** 17:00 **Oinak izarretan** 17:30 **Marrazki bizidunak:** 18:00 **Klip@** 18:15 **Gure lanbide zaharrak** 18:45 **Danbaka:** N_OPH 19:30 **Emisio amaiera**	12:05 **Marrazki bizidunak** 12:30 **Danbaka:** N_OPH 13:00 **Danbaka tartea** 13:10 **Bi eta bat** 13:40 **Filma:** Ivanhoe 14:35 **Danbaka tartea** 15:45 **Iragana gogoratuz:** Txokolategintza eta gatza 15:15 **Ilunpean** 15:45 **Gure lanbide zaharrak** 16:15 **Bi eta bat** 16:45 **Klip@** 17:00 **Marrazki bizidunak** 17:30 **Danbaka:** N_OPH 18:00 **Oinak izarretan** 18:30 **Klip@** 18:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Animalikeriak 14:15 **Berriak** 14:40 **Danbaka tartea** 14:45 **Iragana gogoratuz** 15:15 **Bi eta bat** 15:45 **Berriak** 16:10 **Danbaka tartea** 16:15 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak:** Animalikeriak 21:00 **Behazulo** 21:30 **Danbaka** Los Cretinos 22:00 **Berriak** 22:30 **Behazulo** 23:00 **Danbaka** Los Cretinos 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**
23:00 **Gure kirolak**	14:00 **Filma: Ivanhoe**	14:25 **Debarri**	19:00 **Kalimero**	18:45 **N_OPH**	13:10 **Bi eta bat**	21:30 **Danbaka**

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

jOeRaK!!

C65

35€*
KONTRATUPEKO MUGIKORRA
ARGAZKI-KAMERADUNA

A65

39€
TXARTEL BIDEZKO MUGIKORRA
100 €-rainoko SALDOA DEIAK EGITEKO**

* Euskaltel Hautaketaren edo Leihoaren bezeroentzako PSPa.
Euskaltel Mugikorren Kontratuan abenduaren 3 eta 12 bitartean egiten diren altentzat balio du promozio honek. Muga: 500 unitate.
** Kontsultatu saldoari buruzko baldintzak. Muga: 500 unitate.

ROUTER COMUNICACIONES, S.L.
Maalako Errebala, 8 behea
Atzeko aldea
Arrasate
Tel.:943 71 27 81
Faxa: 943 71 17 85

Euskaltel -en Banatzaile Ofiziala

MULTIOPTICAS

Gabonetako Opariak

P.S.P.: 50€
Gabonetan 42€

P.S.P.: 45€
Gabonetan 33€

P.S.P.: 45€
Gabonetan 35€

Zure Varilux®
PROGRESIBOAK egokituta,
opari hau:

ESSILOR

Meteorologia estazio zoragarria

Crizal'ALIZÉ ·rekin eguna garbiago.
Erreflexu-kontrako tratamendu berria, ez daukazu garbitu beharrik.

Ez metagarria beste eskaintza batzuetara.

R.P.S. Nº 190/04 I.L.G.

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75 • BERGARA
J. Carlos Guerra • Tel.: 943 79 29 95 • ARRASATE

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.228 ale • **Difusioa:** 18.185 ale.
HARPIDETZA: **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria
EGUBAKOITZA, 2004ko abenduaren 3a

Atzeskua

OIHANA ELORTZA

Bibiana Guridi/ Baserritarra

Zenbat kilo zuen zapatuan hil zenuten txerriak? 200 kilora ez zen heltzen baina gertu zegoen. Atzeko hanka bat pisatu genuen eta 20 kilo zuen.

Urdaiazpikoak egiten dituzue?

Atzeko hanka biak egiten ditugu urdaiazpiko. Gatzetan sartzen ditugu lehendabizi eta hilabete inguru izaten ditugu horrela, pisua gainean jarrita. Gatzetan eduki ostean kanpora atera, gatz gehiena urarekin kendu, piperrautsaz igurtzi eta lehortzen uzten ditugu. Kontu handia izan behar da euliek eta zomorroek ez dezaten ukitu. Azken hiruzpalau urte hauetan oso ondo ondu dira.

Eta gainerako okelarekin, berriz, txorizoak egiten dituzue?

Bai, aurreko beso biak ere txorizoak egiteko zatikatzen ditugu gainerako okela guztiarekin batera. Lurrezko barrinoetan sartzen dugu orea, eta lauzpabost egunera egiten ditugu txorizoak. Bi egunean behin buelta ematen diogu oreari. Egin eta gero, lehen, koipetan sartzen genituen eta orain, ordea, batzuk hutsean ontziratzen ditugu eta beste batzuk oliotan sartzen ditugu. Kordela osoan sartzen dugu oliotan, ez txorizoak banan-banan.

Zenbat txerri hiltzen dituzue urtean?

Bakarra. Otsailean ekarri genuen etxera txerria, eta hementxe hazi dugu. Lehen, San Isidro ferian erosten genuen, baina negurako ez zen askorik hazten, eta martxorako utziz, berriz, epeltzen hasten da eguraldia, eta okelarendako hotza hobea da epela baino.

Ilargiari kasu egiten diozue hiltzeko eguna erabakitzeko?

Bai. Joan den zapatuan sartu ginen ilbeheran, eta egunean bertan hil genuen, hurrengoa Gabonetan izango da-eta. Beti egin diogu kasu ilargiari.

Zeuok hiltzen duzue?

Lehen, gizonak hiltzen zuen, bai, baina orain, auzoko batek hiltzen digu. Gero butanoarekin erretzen dugu bertan eta eskaileran uzten dugu okela hozten.

Ez da erraza izango denen gustuko txorizoak egitea, ezta?

Ez, ez da batere erraza; gizonei pikanteak gustatzen zaizkie eta umeek, berriz, nahiago dituzte pikante gutxiagorekin. Baina ahal duguna egiten dugu. Odolosteekin ere berdin gertatzen zaigu. Hala ere, ez dira hain txarrak irtengo, komeni ez zaionak ere gustura jaten ditu-eta.

Zer moduzko odolosteak atera zaizkizu?

Gozoak daudela diote denek. Odolosteak oraintxe jan beharrekoak dira, egin berritan.

Txerri-bodak egiten dituzue?

Bai, horixe. Goizean kafea kopa eta guzti, hamarretakoa egiteko berakatz zopa eta gibela, gainetik bazkaldu eta afaltzeko odolosteak eta txerri okela.

"Beti egin diogu kasu ilargiari, eta ilbeheran hiltzen dugu txerria urtero"

"Ez da batere erraza denen gustuko txorizoak eta odolosteak egitea, baina komeni ez zaionak ere jan egiten ditu"

"Oraindik ere txerri-boda egiten dugu, eta menu berezia izaten dugu egun horretan"

► *Antzuola / 79 urte / Sarasketa baserrikoa*

PIPERRAUTSA

Hautagai

Oraindik asko dago argitzeko hemendik eta udaberriko hauteskundeetara. Tartean europar erreferenduma izango dugu, baina arituko naiz horretaz beste batean. Maiatzean-edo, hautatuko dugu EAEko legebiltzarra. Hitzordu garrantzitsua, inondik ere.

Zinez uste dut gaudela aro berri baten atarian. Eta datorren legebiltzarrak egin dezakeela aro berri hori ekarri edo uxatu. Honezkero alderdiak ariko dira zerrendetarako izen bila, etxe barruan, inguruan edo haratago. Hemen nire hausnarketa hautagai balizkoentzat.

Ni hautagai banintz, adierazpen guztiak egingo nituzke euskara hutsez EAEko hedabideetan. Parte hartuko nuke ETB2ko saioetan, baina han hitz egingo nuke euskaraz. Hori baita elebitasuna, bakoitzak besteena ulertu eta berea egitea.

Ni hautagai banintz, saiatuko nintzateke zubigintzan, ez naiz alperrik Ormaiztegiko zubipean jaioa. Balkanetan nola, hemen ere zubi asko bota da aspaldian eta berrien premia dago.

Ni hautagai banintz, kasu gehiago egingo nioke nire senari alderdiaren dotrinari baino. Alderdietan joera baitago hobesteko interes barrenekoak orokorragoen gainetik.

Ni hautagai banintz, bultzatuko nituzke hamar urterako egitasmoak, epe motzekoan itotzen ari baikara.

Ez nago hautagai izateko, eta seguruenik alderdiek ez dute nahi horrelako hautagairik. Ala bai? Badago alderdirik prest? Eta hautagairik?

MIKEL IRIZAR